



uk

53. zenbakia / 2003 azaroak 23



03-04



OPARITU  
EUSKARAZ

03-04

03-04

03-04

Musika

Informatika

Filmak

Liburuak

Aldizkariak

Jostailuak eta jokoak

Web helbideak

Egunak: azaroaren 24tik abenduaren 4ra

Non: Kultur Etxe Zaharrean, Urgull kalea

KALTEA

LEPOAN

DAGIANAK

BIZARRA

GETXOKO UDALEKO  
EUSKARA ZERBITZUA

EUSKARAZko

Produktuen

KATALOGOA eta Ludoteka

«Azaro, azaro, erein eta itxaro» Euskal atsoitza

# Non zer

4. GU GEU.

5. IRUDIA. Ezkurak. Asier Mentxaka.

6. PLAZA. Euskara Getxon, Joxi Arakama. Leihatilla, Josu Esnaola.

7. LEHEN ETA ORAIN. Axpe, Erandio.

8. TALAIA. Beste begirada bat.

10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.

23. AGENDA.

## SAKONEAN

24. ALBUMA. Harresiak. Asier Mentxaka.

26. BERBETAN. Xabier Oleaga. Unai Brea.

28. ERREPORTAJEA. Euskara gora eta behera. Unai Brea.

## KULTURA ETA AISIA

30. DOKUMENTUA. Fudurako kontzertu gogoangariak.

34. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Kimuak egitasmoa.

35. MUSIKA. Autosekuestro taldea. Diskoen erreseinak.

36. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Gonzalo Iribamegaray.

37. KOMUNIKAZIOA. Argiaren egutegia.

38. NATURA. Gorlizko araztegia. Untzia.

39. ELKARRIZKETA. Jon Irazabal, Durangoko Azokaren zuzendaria.

40. OSASUNA. Ludopatía eta homeopatía.

41. JANTZI. Marilu Pérez eta Nerea Muela. Jon Urresti.

42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.

## EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Josu Esnaolari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

46. AKABUKO PUNTE. Sintaxi lezio bat, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoen "Gure berbakere" zutabea.

## AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Urdulizko Regi jatetxean.


50. HOROSKOPOA.

51. KOMIKIA. Dogan Gozel.

52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.

53. FLASH BACK. Hirutasun abesbatza, 1979. Bittor Egurrola.

54. AITORMENAK. Pedro García Larragan.



26 Xabier Oleaga



11 Maremi Losada




44 Josu Esnaola




43 Mariu Pérez & Nerea Muela



30 Fudurako kontzertu gogoangariak



54 Pedro García Larragan



26 Xabier Oleaga



11 Maremi Losada




44 Josu Esnaola



43 Mariu Pérez & Nerea Muela



30 Fudurako kontzertu gogoangariak



54 Pedro García Larragan

zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK 3



**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO  
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Unai Brea, Jon Urresti, Eunat Serrano  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Xabier Bilbao  
**KOLABORATZAILEAK:** Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxadola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarnegaray, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Mixelko Uranga  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**HARREMANAK:** Gorka Oneta  
**FILMAZIOA:** Argia / Inprimategia: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazink dago  
© Boluntzarreta  
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da



*Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du*

Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta



**TOPAGUNEa**



**GETXOKO UDALA**

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



**Leioako Udala**

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



**BERANGOKO UDALA**

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



**Erandioiko Udala**

Aldizkari honek Erandioiko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioiko Berboto Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du



**Bizkaiko Foru Aldundia**

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



**Fundación Grupo Eroski**

CONTULMITZAILARISUTZAI

**UK**

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

# Jardun euskaraz

Aurreko UKn, euskararen gainean jardun genuen atal honetan. Orain, eta gogaikarri hutsak izatea leporatuko diguzuela onartuta, gai berari helduko diogu... beste ikuspegi batetik jorratuta, hori bai. Getxoko Euskararen Jardunaldiak aurrera segitzen dute; aurreko urteetan bezala, jai giroan ospatuko diren hainbat ekitaldi egingo dira, baina aurreko urteetan ez bezala, alderdi serioago bat ere landuko dute Jardunaldiok: hizkuntzaren egoera.

Horretarako, hiru hitzaldi edo mahainguru antolatu dira. Lehenak *Euskarak badu etorkizunik II* dauka izenburua. Horrela esanda gainera, galdera ikur barik, erabateko baieztapena eginez. Euskarak badu etorkizunik. Hala bedi ba. Hurrengo ekitaldi bien izenburuek zalantza handiagoa agertzen dute ordea: *Euskararen egoera: kezkatzeko arrazoirik ba ote dago?*. Horra galdera potoloa. Egia esateko, galdera hori egin beharrean bagaude zeozergatik izango da, ezta? Argi dagoena, behintzat, zera da: kezkatuta egoteko arrazoirik egon ala ez, lar pozik egotekoak ez dauzkagula, edo ez ginateke hizkuntzaren osasunaren gainerako mahainguruak antolatzen ibiliko.

*Euskaldunok Europako azken aztarna ote?* azken mahainguruak benetan gai interesgarria dakar. Bitxia litzateke, bai, inoiz Europa osoan hedatutako zibilizazio baten azken hondarra geu garela jakitea. Dena dela, gaur egun ziur dakigun bakarra da oraingo euskaldunok antzinako euskaldunen azken aztarna garela. Etorkizunean gure aztarnak bizirik irautea bermatzeko gauza izango gara? Horra hor kezkatzeko arrazoa izan behar lukeen gaia. 4


**UKko lantaldea**

**gutunak**

*Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31*



Goizero >>>>> **berria**



**Ezkurak baino ez?** / Gorlizen egin dugun irudi honek gauza asko ekar ditzake gogora, ia pertsona adina gauza. Badakizue, zenbat buru... UKko erredakzioan eztabaida egin dugu argazki honetaz, eta bakoitzak gauza bat esan du. Bati, esaterako, lurrean zerraldo dautzan ezkurrok itsasoak biribildutako harriak gogorarazten dizkiote. Beste bati, galaxia urrun batetik ailegatutako eta Lurra menpean hartzeko prest dauden estralurtar txikien ejertzito beldurgarria. Nori, udazkenero lurrera jausteak dakartzkien kalteengatik protestan, manifestazioa egiteko elkartu diren fruitu mordoa, eta hari, jausitako ezkur pilo bat baino ez. Eta zuri? / Argazkia: Asier Mentxaka



Leihatila

> Josu Esnaola

Hitzak hitz

Hitzak berez neutroak dira, geuk, gizakiok, ematen diegu karga semantikoa, bakoitzak berea, gainera. Pernandoren egia, pentsatuko du batek baino gehia-gok, eta izan, hala da. “Itsasoa” diodanean nik eza-gutzen dudan itsasoaz, berarekin izandako harremanaz ari naiz, itsaso hori ez da inondik inora arrantzale baten itsasoa, ezta sekula itsasorik ikusi ez duenarena ere. Geure sentimenduak, ideologia, beldurrak isurtzen ditugu erabiltzen dugun hitz bakoitzean.

Halako zerbait gertatu zaie UGT sindikatukoei eta PP alderdikoei “inmigrante” hitzarekin. Euren ideologia, uste, fobia eta beldur guztiaz kargaturik irakurri dute zorioneko hitz hori Hezkuntza Sailak eskolataratar igorritako zirkular horretan. Inmigrante = beltz, mairu, txiro, lapur, arazo sortzaile, behe-mailako arraza, baztertu... da egiten duten irakurketa, besteok pertsona, sentimendu, kultura aniztasuna, itxaropena eta baita gosea, justizia nahia, gerra, inperialismoa... irakurtzen dugun lekuan.

Aitortu behar dut, baina, niri neuri ere antzekorik, agian kontrakoa, gertatzen zaidala beste hainbat hitz eta esapiderekin, esaterako hainbat eta hainbat manifestazioetan entzuten den gora ETA militarra-rekin. Adjektibo horrek sortzen dizkit arazoak, zergatik jarraitzen du jendeak adjektibo hori erabiltzen, beste ETarik badago ala? Bere borroka militarra baino ez da, ala politiko-militarra? Zinegotziak helburu militarrak dira? Eta enpresa-buruak? Lehen esandakoa, bakoitzak bere erara ulertzen ditu gauzak, eta nik inoiz ez ditut militarrek gogoko izan. Hala ere, hitzak gorabehera, errealitateak hor dirau egoskor. 4



aldizkaria etxean  
jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutba  
Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

Iritzia

Euskararen Jardunaldiak egiten ari dira egunotan Getxon. Honen harira, Getxoko Udaleko Euskara Teknikaria den Joxi Arakamari, euskarak herrian bizi duen egoerari buruzko gogoeta eskatu diogu.

Euskara Getxon

**UK aldizkariko lagunek** Getxon euskarak duen egoeraren inguruko hausnarketaxoa egiteko gonbitea egin zidatenean berehala eman nien baiezkoa. Gero, aitortu behar dizuet lerro hauek nola idatzi erabakitzeko buelta bat baino gehiago eman diodala buruari, izan ere, halako gaietan, askotan baikorregia edo ezkorregia agertzeko arriskua baitago. Bi pertsonaia aurkituko dituzu lerrootan: GORA eta HALERE, horietatik gehien errepikatzen diren hitzak; zuk ikusi bietatik zein duzun gustukoena.

Euskaldunen kopurua hogeitun urtean GORA egin du, bikoiztu egin da; Getxon ia 16.000 pertsonak daki euskaraz ondo berba egiten. HALERE, asko moteldu da euskaldunen hazkundearen erritmoa; esaterako, 91tik 96ra bitartean, ehunekoa %34,5 egin zuen gora; 96tik 2001era, oster, %3,4 baino ez. Moteltze hau, neurri batean, biztanleak zahartzearen eta jaiotzak gutxitzearen ondorioa izan liteke.

Getxoko euskaldunak gazteak dira: euskaldun bitik bat 24 urtez azpikoa da. Eta beste datutxo bat Getxoko gazteen hizkuntza-argazkia osatzeko: hogeitun urtez azpiko hamar getxotarretik bik ez daki euskaraz, lauk zer edo zer eta gainontzeko lauak euskaldunak dira.

Transmisioari dagokiola, pozgarria den joera sumatu daiteke adin-tarte gazteenetan, izan ere, bitik bederatzi urtera bitarteko ume getxotarren artean GORA egin baitu ama-hizkuntza euskara dutenen ehunekoa. Batek baino gehiagok esango du hau ikusteko kalera atera besterik ez dagoela, eta arrazoiak edukiko du: azterketa lan handirik egin gabe, Getxoko kaleetan antzeman liteke gero eta gehiago direla euskaraz diharduten aita-ama eta seme-alabak. HALERE ama-hizkuntza euskara dutenen ehunekoa oraindik oso baxua da. Inguru erdaldunduetan, bistan da eskolak itzelezko garrantzia duela euskara berreskuratzeko, eta Getxon ezin bestela izan. Azkeneko zortzi urtean, Lehen Hezkuntzan

(6-12 urte) ereduak izan duten bilakaerari begiratuta, D ereduak GORA egin duela esan liteke: 10 puntu egin du gora, ia-ia A ereduak behera egin dituenak bezainbat. HALERE, 01-02 ikasturteetik hona bilakaera egonkortu ez ote den irudipena daukat, eta gaur egun, ereduak erakusten duten banaketa ez ote den etorkizunean izango dugun errealitatearen ispilu. Denborak esango du!

Ezagupenean GORA egin dugu, baina HALERE erabilerak baxu jarraitzen du, horretarako dauden aukeren azpitik: hamar euskaldunetik lauk erabiltzen du etxean euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera), kaleko neurketek emaitza baxuak ematen dituzte, eskola-orduz kanpoko jardueretan erabilera oraindik baxua da, merkataritza sektorean ere bai, Udaletxean oraindik ezin dugu, bete-betean, euskarazko zerbitzua ziurtatu.

Amaitzeko esan nahi nuke, Udalak oraintsu onartu duela Euskara Biziberritzeko Getxoko Plan Nagusia, datozen urteotan, hemen aurkeztu den diagnostikoak agerian uzten dituen gabeziak zuzentzeko plana, hain zuzen. Esan bezala, onartutakoa Getxoko plana da eta prestaketan herriko hainbat eragilek hartu du parte. Ea denon artean lortzen dugun hurrengoan GORA gehiagotan ikustea eta HALERE gutxiago. 4

Joxi Arakama (Getxoko Udaleko Euskara Teknikaria)



Iraganez doa denbora\* beti / AXPE (ERANDIO)

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.





Opari hauek guztiak, Algortako Amezti kaleko estankotan erosi daitezke

begizorrotz > bizio abertzaleak

**Urteen** joanaz ikurrek hasierako esanahia galtzen dute, eta batzuk kontsumo-objektu bihurtzen dira (ikusi besterik ez dago Che Guevararen irudi ospetsuari zer gertatu zaion). Kapitalismo basatiak halakoak egiten ditu: bere beso bihozgabeak muga barik luzatzen dira, eta ezer gutxi errespetatzen dute. Bizi ditugun garaien zeinua da, edozer gauza erosi edo saldu daiteke-eta. Edo apaingarri bihurtu, geure lauburua bezala. Euskal sena adierazi gura dutenek goiko irudietan daukate eskaintza paregabea: edari-ontzia, pilulakaxa, metxeroa, zigarro-kaxa... Aitortu behar da *kitsch* ukitu bat ere badaukatela opariok. Ai, Sabinok burua altxatuko baltu! <sup>m</sup>



1526an banatu ziren Erandio eta Leioa

bazen > Leioa sortu zenekoa

**Jakingo duzuenez** Leioa Erandioren zati bat izan zen XVI. mendera arte. 1526ko urriaren 31n, ordea, herri biak banatu zituen sententzia kaleratu zen, hamarrenakaz (diezmo) zerikusia eduki zuen auzi luze baten ostean. Harrezkeroztik, Joan Bataiatzailea Deunaren eliza Erandiotik kanpo geratu zen, eta Leioa herri jaio berriak lehen pausutxoak ematen hasi zen. Leioaztarrak euren eliza edukiteko eginahalak egiteko arrazoiaren artean, Ana López Asensiok hainbat aipatzen ditu *Leioa, a través de la historia* liburuan. Horieta bat meza entzuteko Erandioraino joan behar izateak Leioakoei sortzen zizkien eragozpenak dira, garai hartan Elizak edozertarako zeukan garrantziaren seinale. Erandioztarrek, bestalde, ez zuten guztiz onartu “separatismo” saioa, eta hasierako urteetan, euren hildakoak Erandion lurperatzera, eta jaiegun jakin batzuetan meza Erandion entzutera behartu zituzten herri sortu berriko biztanleak. <sup>m</sup>

datua > Leku nahikoa edukiko ete dugu?



Orain dela 53 urte baino askoz gehiago gara

**Gure eskualdea** biztanleriaren aldetik zenbat hazi den jakin gura izan dugu, eta horretarako, gure herrietan 1950ean eta 1975ean zenbat jende bizi zen eta gaur egun zenbat bizi den galdetu dugu, baina ez ditugu datu guztiak lortu. Hala ere, alboko koadroak hazkunde izugarriaren berri emango dizue. Getxon, esaterako, populazioa laukoiztu egin da; Leioan, seikoiztu eta Sopelan, ia hamarkoiztu! <sup>m</sup>

Herri bakoitzeko biztanle kopuruaren bilakaera

|            | 1950                    | 1975   | 2003   |
|------------|-------------------------|--------|--------|
| • Barrika  | 1.031                   | -      | 1.288  |
| • Berango  | 1.664                   | 3.602  | 5.899  |
| • Erandio  | <i>Ez zen udalerria</i> |        |        |
| • Getxo    | 20.587                  | 56.769 | 84.270 |
| • Gorliz   | 1.487                   | 2.850  | 4.814  |
| • Leioa    | 5.607                   | 17.896 | 29.848 |
| • Lemoiz   | -                       | -      | 968    |
| • Plentzia | -                       | -      | 4.005  |
| • Sopela   | 1.520                   | 4.600  | 11.200 |
| • Urduliz  | -                       | 2.255  | 3.215  |

kale izendegia > Jose Antonio Agirre



J. A. Agirre 1904an jaio zen Bilbon

**Eusko Jauriaritzaren** lehenengo lehendakari izan zenak Berango, Gorliz eta Algortan dauzka kaleak eta plazak berari eskainita. Abokatu, Getxoko alkate eta Madrilgo Gorteetan diputatu, Jose Antonio Agirre Lekube bilbotarrak hizlari on fama zeukan. 1936ko urriaren 7an, Gernikan bildu ziren alkateek lehendakari izendatu zuten, baina ordurako Gerra Zibila hasita zegoen. Bilbo frankisten eskuetan erori zenean, Agirrek ihesaldi ia amaiezina egin behar izan zuen munduan barrena: Miarritze, Paris,artzelona, Frantzia, Belgika, Berlin eta AEB. 1946an Parisera itzuli zen, eta heriotzak eraman arte handik egin zuen lan Euskal Herria frankismoaren eskuetatik askatzeko. Parisen hil eta Donibane Lohitzunen ehortzi zuten 1960an. Datorren urtean beteko da Jose Antonio Agirreren jaiotzaren mendeurrena. <sup>m</sup>

KURKUDI  
LIBURU DENDA

Euskarazko  
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
T: 944 913 402

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda

350 <sup>m²</sup>  
KIROLERAKO  
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO  
KIROL  
DENDA

TORRENE 4  
ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA  
TF. 94 491 18 82



# Gitxirentzako kirolak

Gauza jakina da kirol guztiek ez daukatela arrakasta bera. Batzuek ehunka mila jarraitzaile dauzkate, beste batzuei jende gitxiagok egiten die **jaramon**. Azken horietako batzuek, ordea, badute zelanbaiteko onarpena Getxon

**Kirolak indar handia dauka Getxon, hori agerikoa da. Futbol talde garrantzitsu bi, Estatu espainiarreko errugbi ligako talderik entzutetsuenetako bat, txirrindularitza, saskibaloia, igeriketa, atletismoa, pilota... Gainera, jarraitzaile ugari erakartzen dituzten kirolez gain, hain ohikoak edo ezagunak ez diren batzuek ere kabia aurkitu dute herrian. Horiei begiratu diegu oraingoan.**

**Getxoko Hartzak** sofbol eta beisbol taldea 1992an jaio zen, hasieran mutil talde bakar bategaz baino ez. Apurka-apurka, talde gehiago sortuz joan ziren, bai neskenak bai mutilenak, eta hainbat arrakasta lortu dute euren alorrean. Besteak beste, Emakunderen sari berezi bat eskuratu zuten, 1997an, gitxi batzuek baino egiten ez duten kirol bati oso bitarteko eskasakaz eusteagatik. Beisbola, izan ere, kirol ondo ezaguna dugu, hemen inork gitxik arauak azaltzen jakingo lukeen arren. Baina zer da sofbola? Hara, beisbolaren antzeko kirola da, baina zelai txikiagoan jokatzeko da eta arauak apur bat desberdinak dira. Hartzak taldearen egoera bertsuan daude komunikabideen arretarik euren-ganatzen ez duten kirolean diharduten beste getxoztar batzuk. Paddle-a, esate baterako, José María Aznarregaz lotzen dugu gehienbat, baina gehienok tutik ere ez dakigu kirol horretaz, tenisagaz zelanbaiteko antzekotasunik duela ez bada. Getxo ederto nabarmentzen da horretan



Goian, Azkorriko “pikaderoa”; behean, Galeako golfa

ere: berton antolatzen den nazioarteko lehiaketa Estatuko hoberenen artean dago, hoberena ez bada. Hockeya dugu hauetako beste kirol bat. Getxoko bedar gaineko hockey talde-

**«Kirol hauetako asko dirudun jendeagaz lotzen ditugu»**

ak urteak daroaz Estatuko lehiaketetan parte hartzen, eta eskola ere badaukate Faduran. Antzeko zeozer esan genezake waterpoloaz, boleibolaz, eta beste hainba-tez.

Oro har, kirol hauetako batzuk dirudun jendeagaz lotzen ditugu geure irudi-

menean. Zelan edo halan, Getxoren gaine-ko topikoa baieztatzen dute kirol hauetan bertoko hainbeste lagunek jarduteak. Eta, egia esan, zenbat golf zelai daude Bizkaian? Bada, Getxon badago bat. m



# Gurea ezagutzera ematen De Paso-ren giden bitartez



Maremi Losada, De Paso Publicaciones-en buru

**De Paso Publicaciones** turismoan be-rezitua dagoen argitaletxe getxoztarra du-gu, eta Euskal Autonomia Erkidegoa dau-ka esparru. Bere ibilbideari orain dela ia 10 urte ekin zion, baina enpresa izaera Ge-txoko Udalak (Europar Batasunaren la-guntzagaz) abian ipini zuen *Euroempren-dedona* izeneko ekimenaren bidez hartu zuen: “Aurretik ere bagenbiltzan, baina pro-grama hark finkatzen lagundu zigun, eta enpresa bihurtu ginen; gainera, saria iraba-zi genuen, eta horrek jarraitzeko adorea ere eman zigun”, azaldu digu Maremi Losada zuzendariak. “Hasieratik Getxo, Gorniz eta Bakioko turismo bulegoek konfiantza izan zuten proiektu honetan eta laguntza eman ziguten”.

Dozena bat liburu eta gida argitaratu

ditu De Paso Publicaciones-ek hamar urte honetan, “*eta katalogoak askoz gehiago*”. Venezuelen jaiotako Maremi Losadak (1987az geroztik algortarra dugu), argital-pen bi nabarmendu dizkigu: Bilboko gida eta hiri horren bilakaera urbanistikoa jasotzen duen liburua. “*Alabaina, argi utzi gura dut argitaratzen dugun guztia ez dago-ela salgai liburu-dendetan*”. Zelangura ere, Bizkaia, *de paso por... Bilbao* gida duela kutunena aitortu digu Maremik; 1995-ekoa du lehenengo argitalpena, eta harrez-keroztik urtez urte kaleratu izan dute edu-kiak berriztuta: “*Bizkaiko hiru, lau eta bost izarreko hotelen gela guztietan topa dezake bisitariak, gaztelaniaz eta ingelesez idatzita*”. m

Harremanetarako: 94 430 10 79

# ERROMOKO ETXE BAT BOTAKO DUTE

Getxoko Udalbatzak Erromoko Santa Eugenia kaleko 12. zenbakian dagoen eraikina eraistea onartu du, bertan hogei elbarritu inguruentzako 600 metro karra-tuko etxe bat eraikitzeko. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza sailak hartu-ko du etxearen kudeaketa, eta ia milioi bat euro inbertituko ditu. Eraikitzeko lanak datorren urteko lehenengo hilabete-etan hastea da asmoa, eta amaitu, berriz, 2004ko azken hiruhilekoan.



Ezkerrean, eraitsiko den etxea

# ARRIGUNAGAKO BASERRI BATEN INGURUKO KEXAK

Oka kaleko bizilagunak sinadurak batzen hasi dira, inguruko baserri baten egoera txarra salatzeko, eta bide batez, euren egonezina adierazteko. Diotenez, oso hondatuta dago baserria, eta osasun-ara-zoak daude, kiratsa eta arratoiak direla-eta; horretaz gain, orain dela gitxi sute bat ere gertatu zen. Eraikinararen egoerak etengabeko kexak sortarazi ditu azken urteotan, baina oraingoan “*jasanezina*” dela diote auzotarrek.



Baserriak zenbait eskale erakarri du



ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Pilota domekero

Andra Mariko frontoian

**Urtero legez,** pilotazaleek hitzordua daukate hamabosgarren aldia betetzen duen Gabonetako Esku Pilota Txapelketagaz. Getxoko Pilota Eskolak antolatuta, hilaren 9an abiatu zen Andra Mari kiroldegiko frontoian, eta abenduaren 21era arte partidak jokatuko dira domeka goizetan; egun horretan izango dira txapelketa hau osatzen duten maila bien finalak. Lehen Maila Bereziko Afizionatuetan, Eguskiza-Erauskin I eta López Aldai III-Tejero bikoteak dira txapela janzteko faborito nagusiak. Lehen Mailako kategorian, berriz, pilotari guztien gaztetasuna nabarmendu behar da, 18 edo 19 urte daukate-eta. Zelangura, etorkizun handiko pilotariak dabilta gurean; horietako batzuk azken Baqué Txapelketaren finalistak izan dira. m

Halako jokaldiak ikusiko ete ditugu?



## GABONETAN ARGI GEHIAGO KALEETAN

Gainean ditugun Eguberrietan Getxoko zenbait auzotako kaleak sasoi horretan ohi den baino apainduagoak egongo dira, Udalak 75.000 eurotik gora gastatuko ditu-eta argitasun kontuetan. Orain arte, Getxo Enpresa eta Merkataritzaren laguntzagaz argiztatu ditu kaleak, baina merkatal-guneetara bakarrik mugatzen ei ziren apaingarriak; hori ikusita, udal agintariek material berria erostea erabaki dute aurton, herri osoan argiak ipintzeko asmoagaz. Dena dela, GEMi laguntza emoten jarraituko du.

**Jon Garai** > nabigatzailea

“Oraindik asko ikasi beharra daukat eskarmentua lortzeko”



Jon Garai, Abrako itsas elkartean

**38 urteko udaltzain areetar honek Ozeano Atlantikoa bakarka zeharkatu gura du 2005ean izango den Transat 650 izeneko estropada gogorrean. Proba honetan 70en bat itsasontzik parte hartzen dute, irteera Frantziako Larroxelan dauka, eta Brasilgo Salvadorren, berriz, helmuga; tartean, 4.250 milia.**

—Itsasoan ibiltzeko daukazun zaletasun horretan zerikusi handia daukate zeure aitonak eta Jose Luis Ugartek, ezta? —Hala da, bai. Aitite pertsona abenturazalea izan zen, eta beti bidaien inguruan egiten zidan berba, Venezuelan eta nabigatzen egon zen garaiko istorioak kontatzen zizkidan... Eta zer esan Jose Luis Ugarteren gainean? Ba, belaren erraldoia dela, diamante bat. Behin bere belaontzian ibiltzeko eta mundu horretara hurbiltzeko aukera izan nuen. —Gainera, uste dut zure aitonaren anaia Espainiako ontzi-kapitainik gazteena izan zela, eta 23 urtegaz hil zela Mantxako kanalean... —Inglaterra ontzi bat zeramaten, eta hango atoiontzi bat oldartu zitzaien, ur-bide bat egin zien eta hondoratu egin ziren. Lagun asko bizirik atera ziren, baina bera azken gertatu zen ontzian, antzina egiten zen bezala.

—Lau urte baino ez daroazu nabigatzen, eta bakarrik zeharkatu gura duzu Atlantikoa. Ez al da jauzi handiegia? —Bai. Horregatik datozen urte bietan behar dudan eskarmentua lortu gura dut, oraindik asko ikasi beharra daukat-eta. Ontzi hauek oso teknikoak dira, eta kontuz ibili behar da. —2005 urtea urruti dago, baina gogoia izango duzu hitzordua hel dadin. —Bai, baina horren aurretik prestatu beharra daukat. Antolatzaileek Bizkaiko Golkoaren eta Irlandaren artean 1.000 milia bakarka egitea eskatzen dute sailkatzeko. Gero, datorren urtean beste hiru estropada egitea gustatuko litzaidake: Select 650, Mini Fastnet eta Open Demi-Clé izenekoak. “Etzeko lan” horiek ondo egiten baditut, parte hartu ahal izango dut. —Belaontziari izen bitxia ipini diozu. Zer esan gura du?

**«Barru-barrutik ateratzen zaidan proiektu honek asko betetzen nau»**

—Ni zelakoa naizen adierazten du apur bat; alegia, euskalduna izateaz eta sentitzeaz gain, nik ez diet uko egiten balio unibertsalei. *Srada* hitzak fedea esan gura du sanskritoaz. Niretzat fede hori zerbait gura izateko beharrezkoa den grina, gogoia eta kementa da; gura dudana lortzeko kemen asko behar da, eta gauza askori uko egin ere, baina ez zait axola, asko betetzen nauelako eta barru-barrutik ateratzen zaidalako. —Kirol-proiektu hau ezagutzero emoteko, weborrialde bat diseinatzen zabilta; izan ere, diru-laguntzak ezinbestekoak dituzu... —Transat 650ean parte hartzeko diru asko behar da segurtasun tresnak eta haize-oihalak erosteko. Estropadan izena emateko ere ordaindu egin behar da, baina garestiena belaontziaren berriri etxera ekartzea da... Hori Brasilera ailegatu naizen seinale izango litzateke. m

# Badator II. Komiki azoka

54 saltoki, bost erakusketa eta hainbat mahainguru izngo dira Areetako Geltokiko plazan



lazko azokak bisitari ugari hartu zituen

**Abenduaren** 12, 13 eta 14an, II. Komiki Azoka egingo da Getxon, Kultur Etxeak antolatuta. Antolakuntza lanez arduratzen den Iñaki Elorriagak adierazi digu aurtengo salmenta-gune kopurua %50 handitu dela iazkoagaz alderatuta, eta horrek parte hartze polita izango dela ematen du aditzera. Areetako Geltokiko plazan paratutako karpara doazen bisitariak komikiakaz eta komikigintzagaz harremana daukaten beste hamaika kontu topatuko dituzte saltokiotan. Hala ere, Komiki Azoka hori baino askoz gehiago izango da. Bost erakusketa egingo dira, Iñaki Elo-

rriagak dioskunez, bertaratzen direnen gozagarri. Horietako bat, gainera, Javier Royo marrazkilari getxoztarra (*Tipula Hiltzailearen* sortzaileetako bat) edukiko du gaitzat. Bestetik, hainbat mahainguru antolatu dira, komikiagaz zerikusia daukaten hainbat gairen gainekoak: “Kontuz tebeoekin”, “Ilustraziogintzaren egoera Euskadin”, “Mangaren eraginpean”, “Komiki eta ilustrazioaren joera berriak”... Ordutegia 11:00etatik 14:30era izango da goizez, eta 17:00etatik 21:30era arratsaldez, eta sartzeak euro bat balioko du. m

## UMEENTZAKO ZINEMA DOMEKETAN

Getxo Kultur Etxearen zinema denboraldia hasteagaz batera, umeei zuzendutako domeketako zinema saioak etorri dira ostera bere. Ohitura den legez, hiru emanaldi daukaz pelikula bakoitzak, eguerdiko 12:00etan, eta arratsaldeko 17:00etan eta 19:00etan, hurrenez hurren, eta betiko legez, emanaldi guztiak Getxo Antzokian egiten dira. Abendu honetan, gainera, astelehena 8 jai eguna denez gero, egun horretan ere filma emango dute (*Los Rugrats. Vacaciones salvajes* hain zuzen ere). Bezperakoa, berriz, *Emil eta detektibeak* izango da (euskaraz). Bestetik, eta II. Komiki Azoka egingo dela baliatuz (ikus goiko artikulua), gai horregaz lotutako filma emango da abenduaren 14an: *Simbad, la leyenda de los siete mares*.

## EUSKARAREN EGOERA AZTERGAI EUSKARAREN JARDUNALDIETAN

Euskararen Jardunaldiak aurrera jarraitzen dute. Hamabostaldi honetan, ohikoak izaten diren ekitaldiez gain, euskararen egoeraren gaineko hitzaldi eta bestelako ekintzek izango dira protagonista. Abenduaren 3an (Euskararen Nazioarteko Egunean), Getxoko Udaletxeak *Euskarak badu etorkizunik II* ikerketaren emaitzak plazaratuko ditu, Getxo Antzokian egingo den ekitaldi baten bitartez. Orain zortzi urte Siadeco taldeak burutu zuen lehenengo *Euskarak badu etorkizunik* Getxoko egoera soziolinguistikoaren azterketa ekarri gura dute gogora bide batez, eta horretarako ikerketa haren ardura eduki zuen Kike Amonarriz gonbidatu legez egongo da hitzaldian. Amaieran, Udal arduradunek orain dela gitxi onartu den Euskara Biziberritzeko Getxoko Plan Nagusia aurkeztuko dute jendaurrera. Gainera, mahainguru bi egingo dira: abenduaren 9an *Euskararen egoera: kezkatzeko arrazoirik ba ote dago?* eta hil bereko 11n, *Euskaldunak Europako azken aztarna ote?*



Kike Amonarriz Getxon egongo da



**GALEA  
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31



# 300 etxe

egingo dira  
Pinosolo inguruan

**Udaletxeak** datorren urterako iragarri du Pinosolo auzoa berreskuratzeko lanen hasiera. Besteak beste, bide berriak, oinezkoentzako lekuak eta berdeguneak egingo dira, baita 300 etxebizitza ere.

Udal agintarien esanetan, egitasmoaren ardatz nagusia Pinosoloko parkea berreskuratzea izango da, herritarrek goza dezaten. Inguru horretako landaredia oso aberatsa denez, arreta handia edukiko da bertako ekosistemei kalterik ez egiteko.

Bestalde, eraikiko diren 300 etxebizitzetatik 100 babes ofizialekoak izango dira, eta Udaletxeak adierazi duenez, Leioaztarrek baino ezin izango dituzte eskuratu, herrian eraikiko diren gainerako 112ak bezala. Pinosolokoak eta Mendibilekoak (hor 36 egingo dituzte) eskuratzeko, hain zuzen, Leioan gutxienez bost urtez errolatuta egon izana frogatu beharko da. Txorierrin egingo diren 76 etxeetako bat lortzeko, berriaz, Udaletxeak gutxienez hiru urteko errol-datzea eskatzen du.

Bestetik, eraikiko diren babes ofizialeko 212 etxebizitzetatik, Udaletxeak 21 gordeko ditu berarentzat, Udaleko beste beharrian batzuei begira banatzeko. m



Argazkian, Mundialito-aren antolatzaileetako batzuk Sarrienen

## Kulturak futbolaz elkartu

### Abenduaren 5ean hasiko da hainbat herrialdetako taldeen arteko futbol txapelketa Sarrienen

**Orain** hiru urte-edo sortu zen Euskal Herria eta Latinoamerikaren elkarkidetzarako futbol torneo. Lamiakoko zelaian jokatzeko, baina egoera eskasa zen, eta orain hilabete batzuk Udaletxera jo zuten laguntza eske. Han, ezusteko erantzuna eman zieten: Udaletxeak etorkin guztientzako futbol txapelketa egin gura zuen (ez batzuentzat bakarrik), Sarrienako zelaian eta ganorazko antolamenduz.

Halaxe eman ziren abenduan zehar Leioan jokatu den Mundialito-aren lehen urratsak. Antolakuntza lanetan diharduen Adrian Vázquezek dioskunez, dagoneko hamabi taldek eman dute izena: Ko-

lonbiak, Peruk, Boliviak, Brasilek, Ekuadorrek, Ghanak, Gineak, Kamerunek, Senegalek, Kongok, Marokok eta Euskadik.

Herrialde bakoitzak 22 jolakalariko taldea aurkeztea da asmoa, baina gutxiago lortzen dituztenek ere aukera edukiko dute derrigorrezkotzat jo den baldintza bakarra betez gero: beren herrialdeko futbol selekzioaren kamisetagaz joatea. Ezer falta ez dadin, kultur ekitaldiak egingo dira partiduen aurretik: dagoeneko ziur dakigu pare bat dantza talde etorriko direla. Vázquezek dioskunez, izena emateko epea azaroaren 29ra arte egongo da zabalik. m

**Harremanetarako: 657-70 18 62**

## Haizea Hormaetxea eta Eneko Calle > dantzariak

# Bizkaiko jotari eusten



“Bizkaiko modura egiten dugun bakarrak gara”

**Orain** dela lauwpabost urte, Haizea Hormaetxea leioztarrak Eneko Calle ikaskideari elkarregaz jota dantzatzeko proposamena egin zion. Calle, urduliztarra eta momentu honetan Elai-Alai taldeko kidea, bizitza osoan ibili da euskal dantzan –bai eta Haizea ere, baina gaur egun ez dabil inongo taldetan–, eta gehiegi pentsatu barik baietz erantzun zion.

Gaur egun hamaseina urte dauka bikoteak, eta azken urteotan astelehenero-astelehenero egindako entseguak fruitua ematen hasi dira. Orain dela gutxi, Bizkaiko euskal jota –edo “dantza suelta”– txapelketa irabazi dute, partaiderik

gazteenak izanda gainera. Horren aurretik, Algortakoa zeukaten irabazita.

**Bizkaian, gainbehera**

Trapagararen entseatzeko dute, hangoa daukate-eta irakaslea, aldiko bi orduz, eta inork gutxi erabiltzen duen jota mota darabilte: Bizkaikoa. “*Bizkaiko jota dago, Gipuzkoakoa, Arratiakoa...*”, azaldu digute, “*guk, txapelketetan behintzat, Bizkaikoa egiten dugu beti, eta bakarrak gara*”. Antza, Bizkaian gainbehera doa jota, eta egiten dutenek ere Gipuzkoako erara egiten dute. Enekok dioenez, Bizkaikoa bi-ziagoa da, arinagoa. m

ETXETKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

**Lacofris, s.l.** SERVITEC



¥ MARKA GUZTIAK  
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
¥ 3 HILABETEKOKO GARANTIA  
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00      Kasune, 18 • ALGORTA



etorri  
eta  
ikus!!

**LORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta



BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

**HIRURAK**

Sarrikobaso 15



**amesti 7sl**

[eraikuntzak]  
[etxeetako berrikuntzak]  
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06  
48990 ALGORTA



**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK**



**egiten ditugu**

**Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83**

**udondo**

**taberna**

*eguneko menua eta afariak*

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

**SANITAS OSASUN ETXE BERRIA LEIOAN**

Sanitas osasun arretarako konpainiak osasun etxea ireki zuen Leioan orain dela pare bat aste. Hain zuzen, Negurigane auzoan dago egoitza berria, eta hainbat berezitasun eskaintzen ditu: oinarizko medikuntza, obstetrizia, ginekologia, pediatria, analisi klinikoak, anatomia patologikoa, odontostomatologia, podologia, irudi bidezko diagnostikoa, OLT eta traumatologia. 28 profesionalak jardungo dute bertan, medikuak eta erizainak batuta. Osasun etxe berri honek dauzkan 460 metro koadroetan, bederatzi kontsulta-gela, erradiologia gunea, larrialdietarako zerbitzua eta haurtzaindegia aurki daitezke. Eraikin bateko beheko solairuan dago, eta bertako arduradunek adierazi dute, kontu handiz zaindu dute elbarriei eta mugitzeko zailtasunak dauzkatenei sarbidea erraztea. Leioakoa Sanitasek Bizkaian ireki duen mota honetako lehen osasun etxea da.



# Igone Etxebarria

“Ni Kateakoa naz, Erandioko auzorik eleganteena”

Igonek 78 urte ditu. Kateako baserri baten jaio zen eta 25 urte zeukala Arriagara ezkondu zen. Inguru horretan urteen joanean izan diren aldaketen lekuko dugu bera eta lehengo eta oraingo kontuak kontatzeko eskatu diogu. Euskalduna da eta "*amuma, holan ez da esaten*" zuzentzen diote ikastolan ikasitako ilobek.

**Aita** Kateakoa zuen eta ama Lejarza ondoan dagoen erdi eroritako baserrikoa. Hamar neba-arrebatatik bigarrena da bera, eta zaharrena amumarenean hazi zen, Igonek eroaten zituen neba-arreba txikiak batera eta bestera, lepotik dingiliska, eskutik tiraka...

*“Lehenengo Erandioko Landako eskole-  
tan ibili nintzen zortzi urtera arte. Gero  
Asuko eta Goierriko eskolak egin zituztan.  
Asuko eskolak neuk estrenatu nituen. Es-  
kolak 70 urte dekez eta eskola eleganteak  
ziren gero! Lababoak eta dutxak eta guzti.  
Eta non ikusten dozu nire edadean horrela-  
korik? Han ibili nintzen bigarren gradoan  
16 urtera arte”.*

**«Indumetal dagoen  
lekuen nire osaba batek  
kiskillak koiuten zituen»**

Gaztaroko kontuez galdetu eta Kateako eta Asuko jolasak aipatu dizkigu. *“Gu ibilten ginen jolasera El Jolas de Pio eta El Jolas de la Calderona-renean, batetik bestera joaten gintzezan bide barritik; oin eiten gendun dantzaz leku baten eta gero besten, Sondikien eta Asun”*. Baina ez ziren bata bestetik urrun Sondikako udaletxea, jolasa eta beste, Asua ondo-ondoan zeuden eta. Erreka inguruan ere beste bizitasun bat zela esan digu. Berak ez zuela uger egiten ikasi, baina Katean eta Asun mundu guztiak egiten zuela errekan uger.

*“Ezkondu nintzenean etorri nintzen Arriagara. Nire seme-alabak hemen jaioak dira eta gizona be bai, baina niri sekula be ez jat gustatu Arriaga”.*



**Argazkian, Igone Etxebarria**

Berrogei urte zituen Igonek senarra hil  
 zitzaionean, eta beharrera urten behar  
 izan zuen. Lehenengo Franco Española  
 fabrikan egin zituen 9 urte, eta gero beste  
 14 Eusko Trenen takillera. Beharretik  
 urten eta solora. Gaur egun ere ortukoa  
 egiten du eta sasoi onean dago.

Igonek gogoan ditu garai baten Katea inguruan ziren lantegi batzuen izenak: Liperheide, “Metales Preciosos”, La Tèjera, Morali, eta abar. Eta gogoan dauka ere orduan hezeguneak zirela gaur lantegiak diren lekuetan: “*Indumetal dagoen lekuen nire osaba batek kiskillak koiuten zituen*”.

Lehenagoko etxebizitzak ere falta dira Katean eta Asun. Igonek Kateako etxe baten gorabeherak kontatu dizkigu. “*Katean egoan txalet eder bat, ordurako ederra, eta bizi ziren 2 lekeitiar. Badakizue zeri deitzen jakon lekeitiarra? Fulanari. Gu txikerrak ginenean ez gendun ulertan. Biak ziren euskaldunak, Pilar eta Mercedes. Bata Eibarkoa eta bestea San Sebastianekoa. Eta eukiten eurien interinak, eta nork orduan horrelakorik? Eta hiru txakur. Hareek jaten euriene geuk jango gendun!*”.

Etxe horren inguruko pasadizoak gogoratuta, Igonek honelaxe dio: "*Baina zelako pailasoak izaten diren gizonak, gero!*"<sup>m</sup>



## Erandioko Kzgunea Jado kalean dago

# Sarean“eroriak”

## Erandioko Kzgunea-ra 1.000 bat lagun bildu dira dagoeneko martxoan atek zabaltzeko zituenetik

**Herri** herri arrakasta zer den ezagutz  
doa Kzguna programa. Erandiora martxo-  
aren 15ean heldu zen, Jado kalera, eta ha-  
rrezkero 915 lagun inguru bertaratu dira  
Interneteko mundu zabalean sartu edo eza-  
gutu nahian, horietariko askok ordenagailua  
zer den ere ez zekiten arren.

Jauriaritzak, Erandioko Udalarekin lan-  
kidetzan, Internet erabiltzeko doako presta-  
kuntza eskaintzeko abian jarri duen zentroa-  
ren helburua horretan datza, hain zuzen:  
ordenagailu gaietan jarduna ez den jendeari  
ikasteko aukera ematea, eta gainera, nabigat-  
zeko tresneria haien eskura dohainik jartzea.

Helburu bi horiek dagoeneko bete dira nolabait Erandioko Kzgunean, Marimar Martinez eta Susana Delgado bertoko langileek eginiko txostenetik ondoriozta daitekeenez; izan ere, azken zortzi hilabeteotan ber-

taratu diren 915 erabiltzaileetatik, ia erdiek (418k) ikastaroetan esku hartu dute. Gainerakoak, ordea, guneko ordenagailuak sarean nabigatzeko erabiltzera etorri dira, ordubeteko txandatan. *"Hasieran jende gutxiago etortzen zen, baina gaur egun beteta egoten da zabaltzen dugunetik"*, eranstean du Marimar Martinezek.

Azpimarratzekoa da, era berean, erabiltzaile gehienak (533 lagun) 25 urtetik 44 urtera bitartekoak direla, eta 104 lagunek, berri, 55 urtetik gorako adina dutela. Gizon eta emakume kopuruen artean ez da alde handirik nabaritu (ehuneko 40 eta ehuneko 60, hurrenez hurren). Emakume erabiltzaile horien artean izan dira Erandioko Emakumezkoen Elkarteko kideak. Zertarako? Bada, bere web orria mundura zabaltzeko. Sarean dago ikusi gura duenarentzat. <sup>m</sup>

## ERANDIO ZENBAKITAN

**1992 eta 2003ko urtarileko datuak:**  
**1.800 biztanle gutxiago eta 2.400 auto gehiago**  
**hamaika urteren buruan**

Azken urte honetan Erandioko biztanle kopuruak gora egin badu ere, duela hamarkada bat baino biztanle gutxiago dauka herriak: 2003ko urte hasieran 23.000 eskas ginen eta azaroaren erdialdean 200 bat gehiago gara herrian erroldatuak. 1992ko urte hasieran, ordea, 24.830. Eta bizilagunen aldean ibilgailu kopurua nabarmen hazi delakoan, datu bila jo dugu udaletxera. Hauexek dira 2003ko ibilgailuen erroldako zenbakiak: 9.284 auto, 54 autobus, 1.187 kamioi (furgonetak barne), 179 traktore, 105 atoi edo erremolke, 469 ziklomotore eta 350 motozikleta daukagu. Badugu, bai, ibiltzeko tramankulu nahikoa!

Konparaziorako 1992ko datuak eman dizkigute eta alde nabarmena dago: duela 11 urte biztanle kopuru handiagoa izanik ere, 2.419 kotxe gutxiago zegoen (%35) eta gainera kategoría txikiagokoak ziren; kamioi eta furgonetetan %54 igo da parke higikorra eta horrela ibilgailu mota guztietan. Halere nabarmentzekoa da ziklomotoreten kasua: 42 ziren orduan eta 469 dira orain erroldatuak.

Bizikitek ez dutenez zirkulazioko zergarik ordaindu behar ez daukagu hori buruzko daturik, baina bestelakoak ikusita, eta martxa honetan jarraituz gero, ibilgailu artean harrapatuta eta itota geratuko gara epe laburrera.



\* OKERRAK ZUZENDUZ:

Aurreko alean izatezko bikoteen berri eman genuen. Erandioko erroldan 903 bikote izena emana dutela esan genuen. 93 dira.

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antigua Calf. - Cetus

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87  
944 64 86 91

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



# TIC 2003 lehiaketaren sari banaketa

**Aurtongo** TIC lehiaketa (aurreko urte bietan egin den “htmliarizate”-ren lekua hartu duena) amaitzeaz dago; hilaren 30ean (domeka), eta Ander Deunako jaien egitarauaren barruan, egingo da sarien banaketa. Sopela hizpide daukan lehiaketa hau ekainean jarri zuen abian Informazio, Komunikazio eta Turismo sailak, eta dagoeneko eza-gutzen ditugu uztailetik urrira bitarteko Power Point ataleko irabazleak; egileek ehuna euro jasoko dituzte.

Bestalde, html euskarrian aurkeztutako lan onenarentzat 500 euroko saria dago; 250eko bi, eta 100eko beste hiru ere badaude. Udalak hartuko du saritutako lan horien guztien jabetza, eta [www.sopelana.net](http://www.sopelana.net) webgunean egongo dira ikusgai ikasturtean zehar. <sup>m</sup>

## POWER POINT-EKO IRABAZLEAK

- **Uztaila:** *Itsasoa* (Koldo eta Angel Güemes).
- **Abuztua:** Sopelaren gaineko apunte historikoak (Itsaso eta Angel Güemes).
- **Iraila:** *Sarea* eta *Sopelana*, *bizitzeko herri bat* (Ez dituzte jakinarazi egileen izenak).
- **Urria:** Erdi Aroko IV. Azokaren oroitzapen musikala (Ez dituzte jakinarazi egileen izenak).

# Hirugarren trenbidea

Proiektua gauzatzen denean, sopeloztarrak ez dira 20 minutuz **metroaren zain** egongo



Sopelako geltokiaren erabiltzaileek patxadaz hartu behar izaten dituzte itxaronaldiak

**Sopelako** Udalak metroaren hirugarren trenbidea eraikitzeko lursaila gorde du, herriko geltokiraino ailegatzen diren trenen maiztasuna 20 minututik 10era handitu ahal izateko. Dagoeneko proposamena bera zein lurra uzteko asmoa Bizkaiko Foru Aldundiari igorri dizkio, eta orain erantzunaren zain dago.

Hirugarren trenbidea metroaren ibilbidearen eskuinaldetik paraleloan joango litzateke Urdulizko garajeetarantz, gaur egun oinezko-entzako pasealeku gisa erabiltzen diren lurremu batzuetan zehar, hain zuzen ere. Proiektuko lanak, zehatz esanda, burdin hesia

mugitzea, tokia zabaltzea eta trenbidea pres-tatzea dira. Udalak Metro Bilbaori zein Diputazioari bere esku dagoen guztia emon-go lieke, sopeloztarren ahotik aspalditik eta etengabe datorren eskaera bati irtenbidea emoteke; izan ere, udal agintarien iritziz, obra *“premiatzkoa da”* Sopelarentzat, aurreikusten den hazkunde demografikoaren aurrean.

Gaur egun, metroaren unitateen ohiko maiztasuna 20 minutukoa da Sopelaraino; hirugarren trenbidearen proiektua egia bihurtuta, ordea, 10eraino handituko litzateke, Larrabasterrako geltokian gertatzen den bezala. <sup>m</sup>

Zirrimarra margo elkarte

# Ideiak barra-barra... ...baina tokirik ez gauzatzeko



Europako margolarien mintegia emoten zebiltzanean harrapatu genituen Zirrimarrakoak

**2001eko** apirilean sortu zen gaur egun 70 bazkide dauzkan Zirrimarra margo elkarte; ez dira guztiak Sopelakoak, inguruko herrietakoak ere badira tartean; *“izan ere, proportzioan kanpoko lagunak gehiago ditugu herrikoak baino”*, diosku Txelo Gutierrez elkartearen idazkariak. *“Sopeloztarrak kostata sartzen dira Zirrimarran, baina hasten direnean, poz-pozik daude”*. Gazte jendea erakartzea ere daukate helburu. Bazkideek nahiago duten teknika olioarena da, *“eta margo figuratiboak eta inpresionistak egiten dituzte gehienbat”*.

Zirrimarrakoek ideia eta asmo ugari daukate buruan, eta urte bi eta erdi hone-tan burutu ere egin dituzte horietatik asko, baina oraindik ez dute lokalik lortu,

*“Udalari hiru aldiz eskatu diogun arren”*, taberna batek utzitako areto batean daude: *“Lokalarena premiazko beharra du-gu. Oso mugatuta gaude biltzeko, bazkide-akaz berba egiteko eta gure jarduerak gau-zatzeko, berezko lekurik ez daukagu-eta”*, kexatu da Gutierrez.

Urtean hamarren bat ekitaldi, batez beste, antolatzen ditu elkarteak: jardunaldiak, erakusketak, lantegiak, lehiaketak, txangoak... Orain, eta abenduaren 17ra arte, Europako margolari handien gaineko mintegia daukate eguaztenero Uda-letxearen atondoan, *“20 lagun inguru da-biltza parte hartzen”*; eta abenduaren 14a arte bazkideen margoak daude ikusgai eta salgai. <sup>m</sup>

**Harremanetarako: 94 676 50 08 -19 55**

## BERTSO SAIOA AURREIBILALDIAREN BARRUAN

2004ko Bizkaiko ikastolen aldeko jaialdia Sopelako Ander Deuna eta Leioako Betiko ikastolek antolatuko dute, *Alkarregaz heldu* lelopean. Datorren urteko Ibilaldia maiatzaren 30ean izango da, baina ordura arte ere hamaika kultur eta kirol ekitaldi egongo dira. Bertso saio batek emango dio jarraipena dagoeneko abian dagoen Aurreibilaldiaren egitarauari; Andoni Egaña, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak arituko dira Urko kiroldegian hilaren 30ean (domeka), arrastiko 18:00etatik aurrera. Bestalde, abenduaren 19an (barikua) Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldi bi eskainiko dituzte kiroldegi beran, euren ikuskizun berria estreinatzeko.

[sopela]



## GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Telletxe 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA



Basagoiti, 55 behe

T.: 94 460 09 62 / 66

Faxa: 94 460 0966

48990 ALGORTA

[eginkor@euskalnet.net](mailto:eginkor@euskalnet.net)

[www.inmoeginkor.com](http://www.inmoeginkor.com)

INMOBILIARIA



aldizkaria etxean  
jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa  
Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
[ukaldizkaria@telefonica.net](mailto:ukaldizkaria@telefonica.net) / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!



# Gainezka egiten ia

Berangoko lurzoru urbanizagarria, herriaren azalera osoaren %14 hain zuzen, **laster guztiz beteta** egoteko bidean dago

Mapan begiratuta, Berangok ezkerretara okertuta dagoen madari baten itxura dauka. Alderik estuena goian eta ezkerrean dago (iparmen-debalean), eta hortxe daude, Sopela eta Getxoko mugen artean, herriko eraikin gehienak. Gainerakoa mendia da, baserri batzukaz, eta holan jarraituko du oraingoz. Berangoko lurzoruaren %86 nekazal-lur modura dago kalifikatuta. Gainerako %14, berriz, eraikinez guztiz beteta egon daiteke urte gutxiren buruan.

**Berangon** urbanizagarri modura kalifikatuta dauden lurretatik, gutxi daude “hutsik”, eta horietatik gehienak, gainera, etxez beteko dira epe laburrean. Kasurik aipagarriena Intxaurragakoa da. Han, 199 etxe eraikitzen hasteko dagoz, babes ofizialeko 24 eta merkatu libreria joango diren 175. Ez hain epe motzerako, baina ezta oso luzerako ere, aurreikusita dago Kurtzen 94 etxebizitza eraikitzea, eta Lukategin beste 50. Oraindik hasierahasieran (baina bideratuta) dago, bestalde, Santa Ana auzoko plana.

Aurrekoa kontuan hartuta, urbanizagarri kalifikaziodun eremu bi baino ez dira geratzen “ikutu” barik. Bata, handiena, Otxandategikoa da, Kurtze eta Azko-



Berangon orain eraikitzen dabiltzan etxeetako bat

rrari artean; bestea Mimenaga da, eta ez dirudi, udal iturrien arabera, horrentzako inongo planik abiatuko denik epe laburrean, Getxogaz batera egin beharko litzatekeelako, eta horrek kudeaketak zaildu egiten dituelako beti ere. Otxandategiri dagokionez, aldiz, seguruena da noiz edo noiz hastea bertan etxeak eraikitzeko urratsak ematen.

Gaur egungo araudiaren arabera, ai-


patutakoetan besterik ezin da eraiki, baina horrek ez du esan gura hala izango denik betiko. Goizegi da ezer aurreratzeko, baina baliteke herriko arau subsidiarioak aldatzea eta lur gehiago urbanizagarri lez kalifikatzea. Orain dela hilabete batzuk herriaren etorkizunaz udaletxearen, herriko elkartearen eta hiritarren artean hasitako eztabaidaren ondorioek zer esanik edukiko dute beharbada. m

## Perretxikoak ezagutarazten

**Gorozti** elkarteak hamabi urte daroaz beharrean

**80ko** hamarkadaren amaieran lagun talde bat elkartzen hasi eta handik laburrera, 1991n, Gorosti Naturzale Taldea legeztatu zuten. Perretxiko zaleak dira, eta beraz, perretxikoak biltzea eta erakusketetara eroatea dute maite. Hala ere, fosil eta mineral erakusketak ere egin dituzte inoiz, Imanol Rodriguezek, “Mastigane” elkarteak kideak, esan digunez.

“Dozena inguru lagun dabiltza beharrean, denak Berangokoak, baina zeozer antolatzen dugunean jende gehiagok laguntzen digu”, dio Mastiganek. Irailetik azarora arteko asteburu guztietan irteerak egiten dituzte Euskal Herriko mendietara perretxiko bila, “Soriaraino ere joan ginen behin, baina gehienbat gure inguruetan ibiltzen gara, Gorbeia-aren Arabako aldean batez ere”. Gero, perretxiko horiek erakusketetara daroaz, bai Berangon eurek egin-dakoetara, bai eskualdeko beste elkarteek antolatutakoetara. “Gero, jakina, alboko herrietakoek eurenak ekartzen dituzte geuk



Imanol Rodriguez “Mastigane”

antolatzen dugunean”.

Erakusketetan perretxikoak jateko aukera ematen dute: “Bospasei perretxiko mota eskaintzen ditugu dastatzeko”, dio Mastiganek, “jendeak beldurra ken dezan”. Ondo dago zuhurra izatea perretxikoak jateko orduan, baina beldurrik gabe. m

## EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO OSPAKIZUNAK

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta, Berangoko Kultur Etxeak hainbat ekitaldi prestatu ditu aurreko astebururako. Azaroaren 29an (zapateria), arratsaldeko 18:30etik aurrera, umeentzako erromeria izango da pilotalekuan, Telmah taldeak eskainitako *Ebaristo*, musika piztu ikuskizunagaz. Azaroaren 30ean (domeka), beriz, ipuin kontalari saioa egongo da Berangoetako Kultur Etxean, arratsaldeko 17:30etik aurrera.

## KONTSUMITZAILEEI ZUZENDUTAKO HITZALDI SORTA KULTUR ETXEAN

Berangoko KIUBeK (Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa) hitzaldi sorta ematen dabil Berangoetako Kultur Etxean. Horietako lehena, *Gabonetako kontsumoa*, azaroaren 26an izan zen; zoritxarrez, zuek aldizkari hau jaso baino lehenago, beraz. Gainerako hitzaldiak, ostera, harrapatzeko garaiz zabilzate oraindik. Honako hauek izango dira: *Asistentzia-zerbitzu teknikoak* abenduaren 3an, *Bidaia konbinatuak* abenduaren 19an, eta *Etxebizitza*, abenduaren 17an. Den-denak eguaztenez eta arratsaldeko 19:00etan hasita. Hizlariak, beti ere, KIUBeko kideak izango dira.

# aldai

---

**TAPIZTEGIA**

---

**DEKORAZIOA**

---

**ERAKUSKETA**

---

**ETA TAIERRAK**

---

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



# VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net





**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



**BASTARTENA**  
URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



**Taberna Berrn**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**krimea**  
AREETA

Negubide 13  
Tel. 94 463 61 82



**jateko**

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

## [herriak]

### PLENTZIA Kasinoa eraberritzen dabilta



Lanek dirauten bitartean Kasinoaren eraikina estalita egongo da

**Eraberritu** ostean, Plentziako Kasino esanguratsua 18 gela, jatetxea eta kafetegia edukiko dituen hotela bihurtuko da; gainera, eraikinaren ugazaba den Aurrera elkarteak hortxe paratuko du egoitza. Dagoeneko barrualdea eraitsi dute, eta hilabete bi hauetan zimenduak ipiniko dituzte, datorren urtean egitura berriak ezartzeko eta berreraikitzen hasteko. Obrak 2005 urtearen hasieran amaituko ei dira, eta orduan zabaltzeko moduan egongo da hotel berria.

Eraikinari beste solairu bat gehituko diote; alabaina, gaur egun daukan altuera aldatu barik, solairu bakoitzaren forjaketak jaitsiz. Halaber, interes historikoko eraikin

honen kanpoko itxura jatorrizko eran gordetzeko ahalegin berezia egingo dute. Azken urteotan Kasinoa oso hondatuta zegoen (hondamen egoeran, alegia), eta akziodunek ez zeukaten behar adina dirurik eraberritze lanei aurre egiteko.

Luis de Bastida arkitektoak eraikia zuen Plentziako Kasinoa, eta 1892an zabaldu zen lehen aldiz, marinelen topagune izateko; orduan gazte erretiratzen eta kostaka moldatzen ziren lehorreko bizitza berrira. Denborak aurrera egin ahala, Kasinoa herriko eraikinik adierazgarriena bilakatu zen, Udaletxea, Palas Hotela, Eliza eta *El Torreón* Etxeagaz batera; Astillero plazako ondarearen zati bat ere bada. <sup>m</sup>

### LEMOIZ Etxebizitza gutxiago egitea eskatu dute

**EAEko** Auzitegi Nagusiak Lemoizen eraiki beharko diren etxebizitza kopurua murrizteko agindu du. Iaz, Txipio Bai talde ekologistak helegitea aurkeztu zuen herriko arau subsidiarioen aurka. Besteak beste, Udaletxeak hasiera batean eraiki beharreko etxebizitza kopurua handitzeagatik ipini zuten helegitea, eta Auzitegiak

arrazoia eman die orain. Udaletxeak aurreikusitako 398 etxebizitzetatik, beraz, 371 baino ezin izango dira egin emandako epaiaren arabera. Hala ere, sententzia ez da finkoa oraindik, eta hori dela-eta Txipio Baik beste helegite bat aurkeztuko du, Lemoizko arau urbanistikoak geldiarazteko eskatuz. <sup>m</sup>

# Azaroak 28-Abenduak 14

[agenda]

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [aldizkaria@euskalnet.net](mailto:aldizkaria@euskalnet.net) • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

### EUSKARAREN JARDUNALDIAK

#### GETXO

► **Zaharregia, txikiegia, agian.** Poesia eta musika ikuskizuna. Azaroak 28, barikua. Getxoko Kultur Etxeko Areto Nagusian. 20:00. Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Ruedaren eskutik.

► **Zirkus-mirkus: Detraka taldea.** San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua. 19:30.

► **Bertso-pilota.** Pilotariak: Martin I-Martin II/Etxebarria-Erauskin. Bertsolariak: Etxahun Lekue eta Fredi Paia. San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua. 19:30.

► **Kontzertua: Bide Ertzean.** San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua.

► **Diskotop festa.** San Nikolas plazan. Azaroak 30, domeka. 12:30ean umeentzako jolasak eta dantza festa. 17.00etan karaokea eta top festa.

► **Karidadeko benta bertsolari saioa.** Villamonteko Kultur Etxean. Abenduak 1, astelehena. 20:00.

► **Kutsidazu bidea, Ixabel antzezla-na.** Getxo Antzokian. Abenduak 2, martitzena. 20:00.

► **Euskaltegien arteko III. Olinpiadak.** San Nikolas plazan. Abenduak 3, eguaztena. Goiz eta arratsaldean zehar.

► **Euskarak badu etorkizunik II hitzaldia.** Getxo Antzokian. Abenduak 3, eguaztena. 19:00. Kike Amonarrizen parte hartzeaz.

► **Gozategiren erromeria eta txitxi-burduntzia.** San Nikolas plazan. Azaroak 30, eguaztena. 20:00.

► **Euskararen egoera: kezkatzeko arrazoirik ba ote dago? mahaingurua.** Getxo Antzokian. Abenduak 9, martitzena. 19:00.

► **Euskaldunak Europako azken aztarna ote? mahaingurua.** Getxo Antzokian. Abenduak 11, eguena. 19:00.

### ANTZERKIA

#### ERANDIO

► **Perra gorda, perra chika.** *Emakume Bideak* zikloaren barruan. Bekoa ikastetxean. Abenduak 13, zapatua. 19:30. *Burbujas* konpainiaren eskutik.

#### GETXO

► **El jardín.** *Emakume Bideak* zikloaren barruan. Getxo Antzokian. Abenduak 13, zapatua. 19:00. *Aztiak* konpainiaren eskutik.



**ZAHARRA**

**EUSKARAK BERE JAIA BIZIKO DU JARDUNALDIETAN**

► **IKUSKIZUNA**  
**Euskara erraza aldarrikatzen**

Mikel Martínez eta Patxo Telleria aktore bikote umoretsuaren eskutik, *Euskara Senzilloaren Manifestoa* ikuskizuna dator Getxora. Bizarra Lepoan Euskara Taldeak antolatuta, eta Euskararen Jardunaldien barruan, "Euskaltzaindia berriko batzordekide" bi hauek gaiaz daukaten ikuspegia emango dute, barre algarra bat baino gehiago eraginez segurantzean. Abenduaren 4an izango da antzezaldia, eta sarrera dohainik izango da.

• **Non:** The Pipers Irish Pub (Algorta) • **Noiz:** Abenduak 4, eguena  
• **Ordua:** 20:00etan

### ERAKUSKETAK

#### BERANGO

► **Isabel eta Rosamari Calleren olioak eta pastelak.** Erakusgelan. Abenduaren 15etik 30era.

#### GETXO

► **Komiki erakusketa.** Algortako erakustaretoan. Abenduaren 13ra arte.

#### URDULIZ

► **Sukaldaritza, erakusketa bibliografikoa.** Kultur Etxean. Abenduaren 13ra arte.

### MUSIKA

#### BARRIKA

► **Rosca chapa.** *Golfo Norte* tabernan. Azaroak 29, zapatua. 23:00.

► **Rockadelica.** *Golfo Norte* tabernan. Abenduak 6, zapatua. 23:00.

► **The Reverendos.** *Golfo Norte* tabernan. Abenduak 13, zapatua. 23:00.

► *Snuff 2000* eta *Abominable hombre cabeza de tostadora* (film laburrak)+*Bowling for Columbine* (film luzea). Getxo Antzokian. Abenduak 12, barikua. 22:00.

### plentziapLENTZIA

► **Café de noche.** Goñi Portalen. Azaroak 28, barikua. 22:00.

► **Historia de un beso.** Goñi Portalen. Abenduak 12, barikua. 22:00.

### BESTERIK

#### GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxeko Areto Nagusian. Abenduak 12, barikua. 19:00.

#### SOPELA

► **Ibilaldiaren aldeko bertso saioa.** Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Urko kiroldegian. Azaroak 30, domeka. 18:00.

#### URDULIZ

► **Ipuin kontalariak.** Kultur Etxean. Abenduak 9, martitzena. Saio bat 10:00etan eta beste bat 11:00etan. *Apika* taldearen eskutik.

### LEHIAKETAK

### plentziapLENTZIA

► **I. Olentzero Ipuin Lehiaketa.** Lanak abenduaren 22a baino lehen bialdu beharko dira. Arau guztiak lortzeko, [kultura.plentzia@bizkaia.org](mailto:plentzia@bizkaia.org) helbidera idatzi edo 94-677 55 41 telefonora deitu.

### IRTEERAK

#### GETXO

► **Orozkora irteera.** Azaroak 30, domeka. *Elizpe* eskaut taldea.



**hamaika bide**



**zenbat gara**  
elkartea

San Vicente 2  
4. solairua  
48001  
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo  
2 Kafe Antzokia Ondarroa  
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostua  
4 Algara konpartsa  
5 Zaparrada Gaztegunea  
6 Oigetan Umegunea  
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak  
8 Bakaikuko elkea  
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm  
10 Zenbat Gara aldizkaria  
11 Gara argitaletxea





Azkorri (Getxo)



Barrika

# Harresiak

Berbak berak dio, harresia: harrizko hesi edo murrua. Gehienetan itxitura bat eratzen du, gaztelu, hiri edo jabegoren bat inguratzeko. Eskualdean badira batzuk, asko bertako harria baliatuz eraikiak. Gaur egun arriskuan dagoz hala ere, teknologia berriek eraikitzeo era arkaiko hau baztertzen doaz eta. Orrialdeotan inguruan oraindik zutunik topatu ditugun ale batzuk dituzue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Azkorri (Getxo)



Alango (Algortá)



Usategi (Algorta)



Uresarantze (Gorliz)




Portu Zaharra (Algorta)



Gandia (Plentzia)



Gandia (Plentzia)



Usategi (Algorta)



[berbetan]

Joan den azaroaren 3an, zortzi hilabeteko gartzelaldiaren ostean, aske utzi zuten Xabier Oleaga. Uribe Kostan jaio zen, Erandioko Goierri auzoan, orain dela 47 urte, baina lan kontuek -kazetaria da- hara eta hona eroan dute. Gaur egun Oreretan bizi da, eta hango ikastolako presidente ere bada. Ikastolakaz daukan harremana, hala ere, ez da hor amaitzen, lana bertan egiten du eta: 1997tik, Partaide Ikastolen Federazioko komunikazio arduraduna da. Aurretik, beste hamaika lekutan uztartu ditu lanbidea eta konpromisoa Xabier Oleagak: Punto y Horan jardun zuen, EGINEKO zuzendaria izan zen, eta Egunkariako administrazio-kontseiluan ibili zen. Azken hori izan da, hain zuzen, otsailean epaile batek Oleaga espetxeratzeko agindua emateko erabili zuen arrazoia.

# Xabier Oleaga

## Ezeren gainerik, euskalduna

Testua: **Unai Brea**

—Nondik datorkizu euskaragaz sentibe-  
ra izatea?

—Badaukat umetako pasarte bat, gerora asko eragin didana. Sei urtegaz eskolan hasi nintzenean, erdaraz ez nekien tutik ere. Garai hartan Euskal Herriko eskola gehienetan gertatzen zen bezala, zigortu egiten gintuzten euskaraz egiteagatik. Bazeuden erdaldun batzuk, galiziar bat, extremeño pare bat... eta maisuak beti haiek ipintzen zituen adibide lez. Nire pentsamendua izaten zen: ume horiei bere amak irakasten diena ona bada, zer-gatik niri amak irakasten didana txarra da? Atxilotuta egon nintzenean, Goardia Zibilek galdetu zidaten ea noiz sartu nintzen politikan, eta nik esan nien herri-ko maisuak sartu ninduela sei urte nitue-nean. Lehenbiziko aldiz nonork irakatsi zidan zer den bandera bat eta himno bat, eta nire etxean inoiz inork ez dit hitz egin inongo banderaz edo himnoaz. Lehen aztarna politikoak herriko maisuak eman zizkigun, hizkuntzaren, banderaren eta himnoaren bitartez.

—Ederto eragin zizun ba. Bizitza osoan aberringintzan eta euskalgintzan jardun duzu buru-belarri, eta besteak beste, AEK-ko sortzaileetakoa zara...

—Bai, hiru pertsona nabamendu ginen garai haietan. Ez gau eskola eta horiena, e? Horrek ez dauka data ziur bat, oso giza ekimen hedatua zelako, baina gero AEK izango zenari nolabaiteko gorputz orga-

nikoa emateko lehenengo urratsak egiten hasi ginenak gu izan ginen.

—AEK, Punto y Hora, Egin, Egunkaria, ikastolak... Zelako haizea dabilen ikusita, espetxeratzeko arriskurik bazenuen...

—Dirudienez bai. Horren froga gertatu dena da, eta ez dut ukatzen aurrerantzean ere halakorik gerta ez daitekeenik. Fi-  
losofiaz hartu beharko dugu.

—Tira, filosofia eta zeozer gehiago, ezta? Egoera latza da hau, baina batzuk baikorrago agertzen dira, beste batzuk ezkorrago... Zuk zer uste duzu?

—Politikaren mundua oso gertutik jarraitu izan dut, eta horrek gauzak hoztasunez begiratzeko joera ematen du. Gertakarien larritasuna ezin dugu neurtu norberak jasaten dituen ondorioen arabera, oro har gizartean daukaten eragina-rengatik baizik. Esate baterako, Egunkariarena oso gogorra izan da niretzat,

## “Ez zaigu ahaztu behar Egunkariko jendea oraindik dagoela gartzelan”

baina orde, sozialki, Egunkariak ekarri du Berria, eta hori oso ondo egon da. Maila pertsonalean geratu dena gertatu dela, ni oso baikorra naiz une honetan eus-  
kal gizarteari eta aurrera begira eman dai-  
tezkeen pausuei dagokienez. Uste dut gau-  
zak gure alde jokatzan ari direla, ez berez, baizik eta baldintzak sortzen ari garelako alde joan daitezen. Eta hala da nahiz eta


zenbaitzuegan eragin txarra izan. Niri tokatzen bazait, neureari eutsiko diot.

—Zuen atxilotetaren ostean, torturaren gaia plazaratu zen indarrez. Zeuk ere jasan zenuen zeurea...

—Bai, nik ere salaketa aurkeztu nuen. Beti zaude zu frogatu beharrean zer gertatu den, gaur teknikak oso aurreratuta daudelako tratu txarren aztarnarik gera ez dadin goputzean. Ez dizkirate atzazkalak urratu, elektroedorik ez didate jarri, eta baineran ere ez naute sartu, baina hori guztiori egin gabe, torturaren alo-  
rra hain dago hedatuta, non neurri horietara jo gabe, jendea baldintzatu baitezaketen, oso gogorki gainera, bai fisikoki, bai psikologiko-  
ki, eta nire kasuan ere horrela izan da.

—Orduan Martxelo Otamendik hartu zuen torturaren aurkako bandera, zelan-bait esateko, eta badiduri martxoan gaia pil-pilean zegoela, baina orain denoi ahaztu zaigula...

—Hala eman dezake, bai. Nik uste dut Martxelok oso lan ona egin zuela, ez zue-lako berearen aldarria bakarrik egin, bai-  
zik eta denoi gertatu zitzaigunarena. Orain zer gertatzen da? Oihartzun hori hor dago eta jarraitu behar dugu natural-  
tasun osoz zer gertatu zen adierazten. Gertatzen dena da, horrekin batera eta horrek daukan garrantzi guztia-  
rekin



Xabier Oleaga Erandioko Goierri auzoan jaio zen orain 47 urte

—zorionez, mundu mailan ere izan du hedapena—, niretzat oso garrantzitsua de-  
la jakitea oraindik Egunkariako jendea kartzelan dagoela. Arriskua dago, jakinda ni kalera atera naizela, eta Xabier Alegria ez dela atera baina ez Egunkariaren kasuarengatik, beste batengatik baizik, ahazturantzko hondar palakada pare bat botatzeko gure gaiaren gainean... eta ahazteko, hain zuzen, Egunkariko lema-  
zain nagusia izan zena, Iñaki Uria, kartzel-  
lan dagoela.

—Ikastoletan zabilta orain. Oraindik ez dituzte “ikutu”, komunikabideetan sekulako egurra ematen dieten arren...

—Hala da. Iritzi publikoaren aurrean saiatu dira ikastolak deabruzat agertaraz-  
ten, baina kriminalizazioaren pausua, oraingoz, ez dute eman. Hala ere, gerta daitekeen zerbait da.

—Zelangura, ikastolek eguneroko lana-

ri eutsi behar diote. Zeintzuk dira orain  
zuen kezka edo erronka nagusiak?

—Euskal gizarteak aspaldian eman zien zilegitasuna ikastolei. Gaur ez dago eus-  
kal hezkuntza ulertzerik ikastolak gabe, eta ez bakarrik euskal kulturarenganako eta euskal senarenganako konpromisoa-  
gatik bakarrik, baizik eta hezkuntzaren

## “Gaur ez dago euskal hezkuntza ulertzerik ikastolak gabe”

alorrean oso kalitate maila altua daukate-  
lako. Kalitate hori da ikastolek daukaten lanabes nagusia erasoak gainditzeko eta gizartearen konfiantza irabazteko.

—Erandio, Orereta... Nongoa zara?

—Lehen nire gurasoak ziren lekukoa nintzen, Goierrikoa, eta orain nire alabak diren lekukoa naiz, Oreretakoa. Nik abe-  
rri bakarra daukat, eta Euskal Herri osoa

da. Euskal Herriko hiriburu askotan bizi izan naiz lan kontuengatik, eta dagoene-  
ko ez dakit nongoa sentitu behar dudan. —Zu ingurune euskaldunagoan bizi zara Uribe Kostakoa baino. Nola ikusten duzu hemen euskarak daukan egoera? —Oso goibel jartzen naiz Goierri-  
ra joa-  
ten naizenean eta ikusten dudanean guk

mutikotan nola egiten genuen euskaraz eta nola gaur ez duten egiten, benetan zerbait urratzen zait barruan. Bitxia da: gu erdal eskoletara joaten ginen eta esko-  
latik kanpo euskaraz egiten genuen; gaur-  
ko umeak, aldiz, ikastoletara joaten dira eta herrian erdaraz egiten dute, eta oso gogorra da niretzat Goierri bezalako gune batean hori ikustea. m



Hilabete gitxi dira Eusko Jaurlaritzak EAEko III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak plazara atera dituela. Ondorio nagusia zera da: 2001ean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen erdiak baino gehiagok –%55,4– bazuen euskarazko ezagutzaren bat, 1991n baino %10 gehiagok. Jakina, eskualde guztietako egoera ez da berdina. Guk, zelan ez, geureari eman diogu bistadizoa, eta ez ezagutzari dagokionez soilik; gauza bat ezagutzea da, eta beste bat erabiltzea. Gainera, hainbat iritzi batu dugu, honelaxe laburbildu daitezkeenak: asko dago egiteke.

# Euskara gora eta behera

Testua: **Unai Brea**

**Orain dela urte biko** erroldako datuek diotenez, Uribe Kostako biztanleen %22k ondo daki euskaraz, eta beste %30 ia-euskaldunak dira, hau da, euskara ondo edo nahiko ulertzeko gauza dira, baina zailtasunak dauzkate berba egiteko orduan. Datuok hobekuntza txikia adierazten dute 1996koakaz alderatuta, baina argi uzten dute gurea ez dela, inondik inora, eskualde lar euskalduna: ia 75.000 uribekostar inguru erdaldun petoak dira. 96an baino 5.000 gutxiago dira, hori bai, baina zelangura, ia biztanlegoaren erdia da. Bestetik, erdaldun hutsen multzoak galdutakoa ez da euskaldun beteenera joan, ia-euskaldunen multzora baizik. Euskara ondo menperatzen dutenei dagokienez, ehunekoak orain bost urte bezala dirau.

**Erabilera**  
Zenbakiak larriagoak dira erabilerari begiraturaz gero. Aurreko iturri beraren arabera, Uribe Kostan %11k baino ez du etxean euskara erabiltzen. Horien artean, hirutik

bik gaztelaniagaz batera egiten dute, beraz, %3,6k baino ez dihardu, bere etxean, euskara hutsez. Zergatik?

Erantzun asko daude aurreko itaunarentzat. Horietako bat argia da: etxe askotan euskaraz ez dakien norbait dago, eta horrek erdarara bultzatzen ditu euskaldunak. Beste aztarna bat Pili Gutiérrez Getxoko Bizarra Lepoan Euskara Elkarte-

ko kideak eman digu: *“Ohitura kontua da. Ama-hizkuntza gaztelania daukanak, euskaraz hitz egitean, bere betiko ohituren kontra jotzen du, eta hori ez da batere erraza”*.

Gutiérrezen iritziz, erabilera bultzatzea izan beharko litzateke, hain zuzen ere, instituzioek euskararekiko hartu beharko luketen zereginetako bat: *“Euskara ikasteko aukerak ematea ez ezik, hizkuntza era-*

*biltzeko norberaren motibazioa areagotzeko kanpainak egin beharko lirateke”*.

III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak kaleratzeaz batera ia, Getxoko Udaletxeko Euskara Zerbitzuak hirian euskarak duen egoeraren gaineko azterketa egin du. Oraintsu hamar urte bete dira Siadeco enpresak era horretako lehen azterketa egin zuela Getxon, eta orain, Euskararen Jar-

## «2001eko datuen arabera, Uribe Kostako biztanleen %11k baino ez du erabiltzen euskara etxean»

dunaldiak eta Euskararen Nazioarteko Eguna direla baliatuz, bigarren ikerketaren ondorioak emango dira aditzera.

**Getxo**  
Eskualdeko biztanleen erdia biltzen duen Getxon, euskaldun portzentajea %14tik ia %20ra igaro da azken urteotan (1991-tik aurrera), Euskara zerbitzuko Joxi

## Eskualdeko erradiografia

|                   | biztanleak |                | euskaldunak    |                       | ia euskaldunak |                       | erdaldunak     |                       |
|-------------------|------------|----------------|----------------|-----------------------|----------------|-----------------------|----------------|-----------------------|
| • <b>BARRIKA</b>  | 1.027      | <b>1.198</b>   | 435 (%42,3)    | <b>505 (%42,1)</b>    | 195 (%19)      | <b>259 (%21,6)</b>    | 397 (%38,7)    | <b>434 (%36,2)</b>    |
| • <b>BERANGO</b>  | 4.562      | <b>5.158</b>   | 1.509 (%33,1)  | <b>1.484 (%28,8)</b>  | 1.906 (%24)    | <b>1.613 (%31,3)</b>  | 1.957 (%42,9)  | <b>2.061 (%39,9)</b>  |
| • <b>ERANDIO</b>  | 23.264     | <b>21.954</b>  | 4.388 (%18,8)  | <b>3.897 (%17,7)</b>  | 5.142 (%22,1)  | <b>6.221 (%28,3)</b>  | 13.734 (%59)   | <b>11.846 (%53,9)</b> |
| • <b>GETXO</b>    | 80.699     | <b>80.269</b>  | 15.539 (%19,2) | <b>15.975 (%19,9)</b> | 22.430 (%27,8) | <b>25.313 (%31,5)</b> | 47.727 (%53)   | <b>38.981(%48,6)</b>  |
| • <b>GORLIZ</b>   | 3.441      | <b>4.369</b>   | 1.121 (%32,6)  | <b>1.484 (%34,0)</b>  | 852 (%24,8)    | <b>1.339 (%30,6)</b>  | 1.468 (%42,7)  | <b>1.546 (%35,4)</b>  |
| • <b>LEFIOA</b>   | 25.732     | <b>27.524</b>  | 5.467 (%21,2)  | <b>5.990 (%21,8)</b>  | 6.926 (%26,9)  | <b>8.262 (%30,0)</b>  | 13.339 (%51,8) | <b>13.227 (%48,2)</b> |
| • <b>LEMOIZ</b>   | 821        | <b>866</b>     | 559 (%68,1)    | <b>537 (%62,0)</b>    | 117 (%14,2)    | <b>188 (%21,7)</b>    | 145 (%17,7)    | <b>141 (%16,9)</b>    |
| • <b>PLENTZIA</b> | 3.054      | <b>3.559</b>   | 890 (%29,1)    | <b>1.032 (%29)</b>    | 857 (%28,1)    | <b>1.090 (%39,6)</b>  | 1.307 (%42,8)  | <b>1.437 (%40,4)</b>  |
| • <b>SOPELA</b>   | 9.209      | <b>10.376</b>  | 3.008 (%32,7)  | <b>3.451 (%33,2)</b>  | 2.461 (%26,7)  | <b>3.163 (%30,5)</b>  | 3.740 (%40,6)  | <b>3.762 (%36,2)</b>  |
| • <b>URDULIZ</b>  | 2.724      | <b>3.041</b>   | 1.288 (%47,3)  | <b>1.321 (%43,4)</b>  | 534 (%19,6)    | <b>502 (%16,5)</b>    | 902 (%33,1)    | <b>1.218 (%40,7)</b>  |
| • <b>GUZTIRA</b>  | 154.530    | <b>158.314</b> | 34.204 (%22,1) | <b>35.676 (%22,5)</b> | 40.610 (%26,3) | <b>47.940 (%30,3)</b> | 79.716 (%51,6) | <b>74.698 (%47,2)</b> |

Arakamak dioenez. *“Hala ere”,* gaineratu du, *“goranzko joera lehen bost urteetan bakarrik izan zen, hau da, 1996tik hona euskaldunen ehuneko ez da handitu”*. Antzeko zeozer gertatzen da irakaskuntzako datuei erreparaturaz gero. Arakamak dioenez, arlo horretan badago kezkatzeko arrazoirik: *“Hamar urtean 3 urteko umeen matrikulazioa begiratuta, D ereduak gora (%10) eta*

Erabilera berriro ere hizpide. Lehen ohitura aipatu dugu, baina ez da erabileran eragina duen bakarra. Uribe Kostako Euskal Herrian Euskarazek dioskunez,*“hizkuntza berreskuratzeko zereginean urrats eskasak antzematen dira, eta euskaldunok makina bat oztopo aurkitzen dugu gure herrian gure hizkuntzan bizitzeko”*.

## «Euskaldun kopurua handitu arren, erabilerak orain dela bost urteko maila berean dirau»

*A ereduak behera (%8) egin dutela ikus daiteke, baina azken hiru urteotan joerak `elektrokardiograma laua´ agertzen du. Badirudi orain daukaguna izango dela hemendik aurrera egongo den banaketa”*. Getxon, urtero 150etik gora umek egiten dute matrikula A ereduan, *“eta horrek etorkizunean euskaldunek euskara erabiltzeko izango dituzten aukerak mugatzen ditu”*.

Ia-euskaldunen kopurua handitzea pozgarritzat jotzen du EHEk, baina benetako arazoa beste nonbait kokatzen du: *“Batetik, erabilerak ez du gora egin. Bestetik, euskaldunok bigarren mailako herritartzat hartzen gaituzte. 24 orduz euskara hutsez bizitzeko ariketa egiten duena konturatutako da gure eskualdean euskararen benetako egoera zein den”*. m

## Kalean euskaraz egiten da?

SEI elkarteak (eta lehenago beste batzuek) aldiro egiten du euskararen erabileraren kalendariketa. Azkenekoa 2001ean egin zuten, eta orain Uribe Kostari dagozkion datuak bidali dizkigute (ez zen eskualdeko herri guztietan egin, bide batez esateko).

Dena dela, azalpen txiki bat behar dute datuok. Kale neurrketa, izenak berak ederto adierazten duen moduan, kaleko elkarrizketak entzunez egiten da. Metodologia berezi horrek badu mugarik, ezin direlako herri bateko kaleetan izaten diren elkarrizketa guztiak entzun. Batzuetan, aztertutako lagina handiagoa da, eta bestetan txikiagoa. Bestela esateko, kontuan eduki behar da emaitzak ez direla zehatzak. Kasu batzuetan, ezta adierazgarriak ere. Edozelan, errealitatera hurbiltzeko balio dute hein batean, eta balio hori onarturik, orain urte bi Uribe Kostan egindako neurketen emaitzak dakartsueguz (kaleko 100 elkarrizketako, euskaraz zenbat):

- **Erandio** . . .%3,2
- **Getxo** . . . . .%4,9
- **Leioa** . . . . .%8
- **Lemoiz** . . .%23,2
- **Sopela** . . .%10,7
- **Urduliz** . . . . .12,6





BENITO LERTXUNDI, 1985

# Musika harriaren kontra

Euskal Herriko frontoiek pilota partiduak ezezik musika emanaldiak ere ugari hartu izan dituzte aspalditik. Gauza jakina da, baina, frontoiak ez direla musika kontuetarako lekurik aproposena, akustika eskasa dute eta. Hala ere, aterpe egokiagorik ezean hara biltzen dira musikazale euskaldunak sarritan. Horrela, gure eskualdean, Fadurako frontoian kontzertu gogoangarriak antolatu zituen garai batean Getxoko Kultur Etxeak: ia 20 urte igaro dira ordutik hona, eta horren oroitzapena pizteko, hementxe dituzue 1985 eta 1995 urteen bitartean Faduran jo zuten hainbat musikagileren irudiak. Zu zeu irakurle ere akaso horietako kontzertu batean izango zinen.


Argazkiak: **Getxoko Kultur Etxea**




PABLO MILANES, 1985



RAMONCIN, 1988



OSKORRI, 1984



LOQUILLO, 1988





KETAMA, 1991




SILVIO RODRIGUEZ, 1989



ITOIZ, 1985




ERROBI, 1985




RUPER ORDORIKA, 1991




MIKEL LABOA ETA BENITO LERTXUNDI, 1985



DUNCAN DHU, 1987



GEORGES MOUSTAKI, 1986



PEDRO GUERRA, 1995



MICHELLE SHOCKED, 1995



BAD MANNERS, 1989



## zineeskola

Oskar Fernández

### Magia eta zientzia fikziozko filmak (II)

Efektu berezien aita, Georges Méliès (1861–1938), 1895 urtean Lumière anaiek panta-llara eraman zituzten lehen filmak ikusi eta berehala konturatu zen zinemak jendea erakartzeko eta lilu-razazteko zuen ahalmen handiaz. Alabaina, zinemari egin zion ekarpe-na zori hutsez gertaturiko pasadizu batetik hasi zen, historian izan diren hainbat berrikuntzarekin gertatu den bezala: aktore, gidoilari, ekoizle, eszenografo eta zuzendari handi hau egun batean hiriko kale bateko bizit-zaren irudiak grabatzen zebilen, eta kameraz tranbia baten joana filmat-zen zegoela, bat-batean eten egin zen grabazioa kameraren akats batengatik. Arazoa bertan konpondu zuen Méliès-ek, eta grabatzen jarrai-tu ahal izan zuen. Grabaturikoa erre-belatu ondoren, baina, zinemak erre-alitateari magia eransteko duen gai-tasuna agertu zitzaion begien aurre-an: kaletik normal-normal zihotan tranbia hura, halako batean, hileta-gurdi bilakatu zen irudietan. Transformismoa asmatu zuen era horretan zinemaren aitzindari handi honek. Handik aurrera amarruak eta efektuak oparo zabaldu ziren bere estudiotik lau haizeetara. Méliès-en lehenengo film luzea “Dreyfus Kasua” izan zen (1899); politika gaiez zeukan ardura plazaratu zuen film honetan. Benetako gertaera bat izan zuen oinarri, eta Frantzian ezta-baida bortitza sortarazi zuen. Horren adibide, Emilio Zola idazle handiak gai hartaz Frantziako Lehendakariari zuzendu zion eskutitzak (“Nik salat-zen dut”) izan zuen zabalkundea eta sona. Baina nazioartean ospea “Ilargira bidaia” (1902) fimak eman zion. Hamazortzi urteko epean 503 film egin zituen, baina zoritxarrez ezin izan zuen ekoizle-enpresa han-dien aurka lehiatu, eta porrot egin zuen Lehen Mundu-Gerraren garaian. Horren ostean, efektu bere-zien aita eta Frantziako zinemaren aitzindarietako bat izan zenak Montparnass-en gozokiak saltzea hartu behar izan zuen ogibide. 4

## Film laburrak mundura

Kimuak izeneko egitasmoak euskal zuzendarien lanak zabaltzen ditu

**Euskal** Autonomia Erkidegoan bizi diren zinemagileek euren film laburrak munduan barrena ezagutarazteko aukera daukate, Kimuak izeneko egitasmoari esker. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren proiektu honek seigarren aldia bete du, eta ondoko laukian ikus ditzakezue zer film zabalduko dituen aurton; guztira, ia genero guztietako 10 pelikula labor aurkeztuko ditu Kimuak 2003k: komediak, dramak, bai eta musikal bat ere. Lehenengo seiak nazioarteko zinema jaialdietan erakusteko eta parte hartzeko aukeratu dituzte; zerrendako azkenengo lau lanak, berriz, EAEko hiru herrialdeetako hiriburuetan emango dituzte.

Kimuak-eko zenbait film laburrek 23 lurraldetako 111 zinemalditan parte hartu zuten iaz, eta orain arte 84 sari eskuratu dituzte guztira. Uzta oparoa, beraz. Horien artean, gainera, Getxoko zuzendari biren pelikulak egon ziren: Ibon Antuñanoren *Una bala* eta Borja Cresporen *Snuff 2000*, hain zuzen ere.

Eusko Jaurlaritzak iazko arrakasta erre-pikatzea dauka helburu, eta horri begira 66.000 euro jarri ditu aurtongo euskal peli-kula laburren katalagoak osatu eta zabal-kundea egiteko. m



Aurtongo Kimuak-ek Koldo Serra zuzendari getxoztarraren *El tren de la bruja* aukeratu du (beste bost pelikularen artean), nazioarteko zinemaldietan erakusteko.

### KIMUAK 2003 EKITALDIKO HAMAR FILM LABURRAK

- *7:35 de la mañana*, Nacho Vigalondo
- *Ecosistema*, Tinieblas Gonzalez
- *Las superamigas contra el profesor Vinilo*, Domingo Gonzalez
- *Expreso nocturno*, Imanol Ortiz Lopez
- *El tren de la bruja*, Koldo Serra
- *Lepokoa*, Safy Nebbou
- *Sabor a menta*, Aitor Alvarez
- *Raiz*, Gaizka Urresti
- *Pa ti pa siempre*, Carlos Juarez
- *Cuando puedas*, Kepa Sojo

## Ez galdu > “Lugares comunes”

• **Non:** Getxo Antzokia eta Areetako Gran Cineman • **Noiz:** abenduak 3 eta 4 • **Ordua:** 20:00



Federico Luppi

Hau da Adolfo Aristarainek, Argentinako zuzendari ospetsu eta ezagunak, zuzen-du duen azken filma. Film honek Lorenzo F. Aristarainek idatzitako eleberrian du oinarria. Lan hunkigarri eta interesgarri honetan, Adolfo Aristarainek bai ekoizle, bai gidoilari eta bai zuzendari lana egiten du. “Munduan leku bat” eta “Martin (Hache)”-ren zuzendari den honek film honetan gizarteaz egiten duen hausnarke-ta ezkortasunez beterik dago. Aurreko filmetan zeuden itxaropenak eta ilusioak lurundu egin dira. Istorio honek ez du utopiarako lekurik, eta filmean Argentinako gizarteak jasan behar izan duen egoera bortitza eta latza islatzen da nolabait. “Lugares comunes”-ek batez ere guraso eta seme-alaben harremanez hitz egi-ten du. Aristarainek oso aktore onak izan ditu agindupean lan honetan: Federico Luppi eta Mercedes Sampietro, besteak beste.

## Erradiografia > Autosekuestro



Argazkian, taldeko kideak parrandan

**Nondik dator izena:** Behin "autobahitu" zen PPko zinegotziaren istoriotik hain zuzen. *“Bartolinen egoeraz barre eta bromak egiten genituen eta handik sortu zen ideia”*. **Noiz hasi ziren:** Orain dela sei urte elkartu ziren Zori, Gus eta Beñat; urte bat geroago Moro etorri eta horrela osatu zen oraingo taldea. **Taldeko kideak:** Moro (abeslaria), Zori (bateria), Gus (gitarra) eta Beñat (baxua). **Gustukoa dute:** Musika inprobisatzea; igandeetan euren areto-an elkartu eta agertzen diren bi, hiru edo lauen artean zerbait sortzen dute. Gainera bakoitzak musika estilo bat du gustuko. **Eginiko disko-ak:** *Nuestra especie nuestro mundo* orain dela

gutxi grabatutako disko partitua da. Beste gra-bazio batzuk ere badauzkate: *Bartolin in the house*, Algortako Gazte Asanbladako diskoan ere parte hartu dute. **Besteak beste, jo dute:** Hainbat kontzertu eskaini dituzte, batez ere herriko jaietan *“batzuetan agertoki baten gai-nean, bestetan zoluaren altueran”*. Baina baita Leon, Madril eta Valladoliden. **Euskal musika-ren egoera:** *“Azken urteotan musika talde asko sortu dira eta ikus daiteke bakoitzak bere kabuz egiten duela lan. Hala ere helburuaren arabera mugitzen dira taldeak. Gu orain gustora gaude, ondo pasatzeko jotzen dugulako”*. m

www.autosekuestro.tk


## diskoak

Iluntasunari barre  
Kuraia  
Metak



Hasiera batean Kuraia behin-behineko egitasmoa baino ez zen, baina azken urtebete eta erdian laukoteak bizi izan duen esperientzia onak bult-zatuta, proiektuari jarraipena emotea erabaki dute grabazio berri bategaz eta horren oste-an etorriko den biragaz. Indar handiko soinu gogorak (melodiari muzin egin barik) dira entzungai bigarren lan borobil honetan.

Mestijaia  
Mal de ojo  
Gaztelupeko Hotsak



1993an Donostian sortutako talde honek ederki lantzen ditu rumba, tangoa eta erritmo beroak, flamenkoaren alderik alaiena hartuta eta euskaraz abesteari uko egin barik. Hamar urteko ibilaldi honetan bost disko kaleratu dituzte, azkenengoa 14 kantu biltzen dituen hauxe dela; ohiko doi-nuez gain, bertsolariakaz batera eginiko esperimentu bat ere jasotzen du.

Karidadeko benta  
Karidadeko benta  
Gaztelupeko Hotsak



Jon Maia bertsolari zumaiaarra-ren inguruan sortutako proiektu berri honetan Jon bera eta beste bost lagun dabilta: Aran Santamaria, Tolo, Jon Manzisidor, Imanol Manterola eta Domentx Uzin. Garai bateko herri orkestran antzera, eta bertsopak eta koplak oinarri hartuta sortu dituzten doinu bereziakaz egin dituzte disko honetan entzun ditzakegun 14 abestiak.



esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (x)

Biztza  
gizakion arabera

Ez dut inoiz heroietan sinistu. Ezta txikia nintzenean ere. Naturaz gaindiko pertsonaiak irudituz zaizkit beti; perfektuak (perfektuegiak), hotzak, urrunak. Gogokoagoak ditut hezur-haragizko pertsonak, beren akats eta guzti. Izan ere, zeinek erabakitzen du zer den akats eta zer bertute? Nire antzera, maite, gorrotatu, sufritu, alaitu, okertu egiten diren pertsonengan sinisten dut. Eta ulertu ere ulertzen ditut beren arazoak, beldurrak, isiluneak.

Jose Saramagori antzeko zer-bait gertatzen zitzaion erlijio kristauarekin. Kostatu egiten zitzaion Jesusi buruz ematen zuen irudian sinistea. Horregatik, nobela bat idaztea erabaki zuen. Ebanjelioa Jesukristoren arabera jarri zion izenburutzat. Jakina, Jesukristo zen istorio hartako protagonista; amarekin haserretu eta etxetik alde egiten duen Jesukristo, Magdalako Maria ezagutu eta harekin maite-mintzen den berbera, Jainkoa desafiatu eta bere krudeltasuna aurpegiratzen diona. Hau da, Jesukristo gizona. Eta elizan entzundakoari ez, Saramagok idatzitakoari hartzen diot “benetakotasunaren” traza.

Zer pentsatu eman dit nobelak. Heroiak izan ziren Greziako gizar-tearen oinarri, Erromakoan baita, erlijio kristauak mitologia ordezkatu zuenean bereak zabaldu zituen, historiak ere ekoitzi ditu bereak... Heroiak eta heroiak. Nonahi. Hobeto bizitzen erakutsiko baligute bezala. Nahiago nuke Saramagok bezala gizon-emakumeei utziko baligute hitza, bizitza gizakion arabera kontatzen has gaitezen. Heroizidaderik gabe. Gauzak diren bezala. 4

Literatura **ibiltaria**

**Gonzalo Iribarnegaray** Sahararen gaineko liburu bat eta **nobela bi** prestatzen dabil

***Del Sahara** al Toubkal. El Marruecos bereber* izenburu daukan liburuia idazten dabil Gonzalo Iribarnegaray getxoztarra; joan den udan berak bakarrik Saharara egin zuen bidaiaren gainekoa da. Hogei egun eman zituen basamortuan, lur orotako ibilgailu batean gora eta behera. Marokora egindako bosgarren bidaia horretan, Aljeriagaz muga egiten duen berebereen lurraldea ezagutzeko aukera izan zuen, eta Ipar Afrikako mendirik altuenean (4.167 metroko Toubkal) amaitu zuen abentura.

«Bakarrik eman zituen  
hogei egun Saharako  
basamortuan»

Saharako lurraldeen gogortasuna, baina aldi berean edertasuna ere, testuen zein argazkien bitartez islatuko ditu Iribarnegarayren liburuak; alabaina, idazle bidaia-riak ez daki noiz ikusiko duen argia. Ze-langura ere, lan horren aurretik, *Tiempos turbulentos* beraren lehen eleberri historikoa kaleratuko du datorren urteko hasieran; 500 orrialde inguruko liburu hori idazteko hiru urte behar izan ditu, baina dagoeneko amaituta dauka, eta laster emaitza ikusiko –eta irakurriko– dugu. XII. mendean ko-

liburuak



**Oilarraren promesa**  
Joan Mari Irigoien  
Elkar

Azpil herriaren zanpaketa eta desegitea kontatzen du nobela honek, eta herri horrek bizirik irauteko egiten dituen ametsak eta borrokak. Irigoienek 1976an idatzi zuen lehen eleberraren berrargitalpena da hau.



**Bi dorreak**  
J.R.R. Tolkien  
Txalaparta

*Erastunaren Jauna* trilogiaren bigarren liburukia dugu hono-koa. Erastunaren Elkartea bananduta, elkartekideek Dorre Ilunera heldu arte pasa behar dituzten gorabeherak eta arriskuak ditu hizpide. Bidaiak, beraz, aurrera darrai.



Gonzalo Iribarnegaray bidaiaria eta idazlea

katu du istorioaren korapiloa (Ingalaterran eta Lur Santuan, hain zuzen), eta Rikardo *Lehoibihotz* eta Saladino ditu potagonistarik ezagunenak. Erdi Aroan girotuta egon arren, nobelak oraindik gaur egun dirauten arazoen gainean jarduten du: Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko liskar amaiezi-nak, alegia.

Baina ez da hori guztia: Gonzalo Iri-barnegaray idazle emankorra dugu, eta bigarren eleberria ere idazten hasia da: *Dientes de sable* izango du izenburu, eta Historiaurreko pertsonaiak eta giroak isla-tuko ditu bertan. m

ARGIAren egutegia >

Klasiko bat

1982an lehen aldiz kaleratu zen egutegi honek **7.000 aletik gora** saltzen ditu urtean

**Euskal Herrian** dagoen "egutegi-zaletasu-na" ikusita, gaur egun sona handia daukan egutegia kaleratzen hasi zen 1982an Argia astekaria. “*Garai hartan 'Calendario Zarago-zano' izenekoa eta Arantzazukoa zeuden, eta ikusten genuen erlijioarekin lotuta zeudela gehienbat; orduan erabaki genuen euskarazko produktu berri bat ateratzea: eguteki laikoa*”, azaldu digu Argiako argitalpenen arduradu-na den Bego Zuzak.

Azken 6-7 urteotan azalaren diseinua eta estetika berdin gorde diren arren, urtetik urtera barruko edukiak aldatzen eta berritzen doaz, batez ere, egunaren atzealdean irakur daitezkeen testu laburrak. Gainera, ikuspegi nazional batetik egindako egutegia dugu Argiakoa; “*izan ere, zazpi herrialdeeta-ko jaiegunak zaintzen ditugu*”, diosku Zuzak.

Irailaren amaierarako ailegatzen da ohi-ko salmenta-tokietara; zazpi euroren truke eros daiteke liburu-dendetan, kioskoetan eta merkataritza-guneetan. 8.000 ale inguru ateratzen dira, eta urtero ia 7.500 saltzen dira: “*Astekariarekin asko identifikatzen den produktua da, eta publiko fidela dauka; Durangoko Azokan, esaterako, dezente saltzen ditugu*”. Dagoeneko Bego Zuza eta bere taldea urrun geratzen zaigun 2005ekoa prestatzen hasi dira. m



Zazpi euroren truke erosi daiteke egutegia

ZER DAKAR 2004KO  
EGUTEGIAK?

- **Aurrealdean:** Eguzkia, Ilargia, data (koloreen bidez bereizten dira lanegun burusolak, zapatuak, dometak eta jaiegunak), santuen izendegi kristaua eta Seaskarena, eta esaldi esanguratsuak.
- **Atzealdean:** Osasuna, ingurumena, dantza, euskal diaspora eta teknologia berrien inguruko irakurgaiak; txisteak, pasadizo xelebreak, pintxoen errezetak, landareen gaineko gomendioak, biografiak, asmakizunak, ilusio optikoak eta abar.

Ikusi >

Martin

Umore zuria eta ziri ugariak dira ordu erdiko iraupena daukan telesail honen ezaugarriak; eguaztenero ikus dezakegu ETB1en, gaueko 22:10etik aurrera. Jose Ramon Soroiz aktoreak antzezten du Martin pertsonaia, irrati txiki bateko kirol esataria. Bere eguneroko bizimodua dauka oinarri telesailak: alde batetik, irratiko lankideakaz daukan harremana, eta bestetik, bere familia dira argumentuaren ardatzak. Soroizegaz batera, Elena Irureta dugu Martin-en beste protagonista, *Bi eta bat* eta *Jaun eta jabe* aspaldiko telesail ahaztezinetan bezala.

Irakurri > Aldaketa 16



Espainiako Cambio 16 komunikazio-talde ezagu-nak euskarazko astekaria kaleratu berri du: Aldaketa Hamasei. 0 zenbakia urriaren 15ean argitaratu zuten, Kilometroak zela eta. Euren kide batek esan digunez, “*euskaraz-ko aldizkari zabalago bat egin nahi genuen, jende gehiagorengana hel ziteke-ena norberaren pentsakera politikoaren gainetik*”. Euskal Herri osoan zabaltzea dute helburu –oraingoz Iparraldera heltzeko arazoak dauzkaten arren–, eta kiosko guztietan topa daiteke martitzenero, 3 eurotan. Koloredun 84 orrialdetan zehar, politika, gizartea, ekonomia eta kulturaz dihardu Aldaketa Hamaseik.

Harremanetarako: 943 43 30 43

uhinakFM

|                     |            |
|---------------------|------------|
| Getxo Irratia       | .....87.6  |
| Radio Euskadi       | .....92.4  |
| Euskadi Gaztea      | .....94.7  |
| Bilbo Hiria Irratia | .....96.0  |
| Tas-Tas Irratia     | .....97.0  |
| eitb irratia        | .....100.1 |
| Bizkaia Irratia     | .....102.6 |
| Koska Irratia       | .....104.1 |
| Euskadi Irratia     | .....104.4 |
| Pititako Irratia    | .....107.0 |



Gure espezieak >

## Untxia



- **Izen generikoa:** Oryctolagus cuniculus
- **Izen arrunta:** Untxia edo konejue
- **Berezitasunak:** 40-50 zentimetroko luzera, eta 800-1.000 gramoko pisua
- **Bizilekua:** Basoak, landazabalak, iratze eta ote inguruak

Zelaian ugaztun saltari hau bistara agertuko zaigun denbora laburrean zail egingo zaigu untxia ala erbia den bereiztea. Soseguz begiratzeko aukera baldin badaukagu, baina, ikusiko dugu erbiaren belarriak untxiarenak baino handiagoak direla, eta atzealdea askoz zabalagoa daukala, eta beraz, saltorako indar handiagoa. Arineketan egiteko modua

«Hilabeteko ernaldiaren ostean, untxi emeak 4 eta 12 kume bitartean dauzka»

ere berezia daukate batak eta besteak: erbiak jauzia erabiltzen du gehiago; untxia, berriz, sigi-saga ibiltzen da arrapaladan. Bestalde, untxiak ile grisaxka dauka bizkarrean eta zuria sabelaldean.

Ugaztun barazkijalea dugu basoko biztanle maitagarri hau, eta landare egurtsuak jaten baditu ere, nahiago ditu belar-landareak. Handik eta hemendik hartzen du jatekoa, nekatu bari, eta zuloak egiten ditu sustraiak, tuberkuluak eta abarrak bilatzeko. Lurpean egiten du gordelekua, eta kide ugari bizi izaten dira elkarren ondoan. Urtariletik ekainera bitartekoa izaten da untxiaren ugalketa garaia: baldintza egokiak edukiz gero, emeak 4-12 kume erditzen ditu hilabeteko ernaldiaren ostean.

Espezie askoren harrapakina dugu, baina batez ere, neurrigabeko ehizak eta gaixotasun larriek (mixomatosiak eta pneumonia hemorragikoak) zerikusi handia eduki dute untxi kopuruaren beherakadan. Gure ingurunean oso animalia iheskorra da, guztiz muzina jokabidez: ez da harritzekoa, etsai ugari ditu eta —ehiztariak, azeriak, katuak, txakurrak...— bizitza zail egiteko prest.

Gaia > Gorlizko araztegia

## Ura hobeto garbitzeko

Foru Aldundiak Gorlizko Hondakin-uren Araztegia handitzeko lehiaketa deitu du

**Gorlizko** araztegia 1997tik dabil Gorliz, Plentzia eta Barrikako hondakin-urak garbitzen. Orain arte, ura arazteko tratamendu fisiko-kimiko bat baino ez zaio eman urari, baina araztegiko handitze-lanen ostean, horri tratamendu biologikoa eta desinfekzioa gehituko zaizkie, hala behartzen du-eta Europar Batasuneko azken legediak.

«Araztegiak 32.000 lagun en ur zikinak hartzen ditu udan»

Gauzak horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak araztegia handitzeko lanen lehiaketarako deialdi publikoa egin du. Lanok abenduan dira hastekoak, eta 2005 urteko udaren ostean egon behar lukete amaituta. Hau da Gorlizko araztegiaren egingo den lehen aldaketa garrantzitsua, eta Aldundiko iturriek adierazi digutenez, lanek ez diote ia eragin-eguneroko jardunari.

Gorlizko Hondakin-uren Araztegiak 7.700 lagun en ur zikinak hartzen ditu

neguan, eta 32.000rena udan. Zelangura, zerbitzua 50.000 biztanle baino gehiagori emateko diseinatuta dago. Garbitutako ura ez da berriro erabiltzen. Gaur egun, lur gainetik doan hodi batek eroaten du itsasora, Gorlizko badia baino urrunagoko leku batera. Baina Aldunditik dioskuenez, etorkizunerako begira, ur azpitik joango den eta itsasoan nahiko urrunera ailegatuko den hodia paratzeko asmoa dago. m



Gorlizko Hondakin-uren Araztegia

## Sasoia da > Harresiak eta landareak



UK honen azalean ikusiko zenutenez, landareek bizileku ederra aurkitu dute harresietan. Berez hau udaberriko gertakaria bada ere, gure eskualdeko eguraldiaren ezaugarriei esker, udazkenean ere harresiak landarez josita ikus ditzakegu batzuetan, ez du hotz handirik egiten eta. Neguan ere, izozte handirik ez badago, eutsi ahal izango dute, eta udaberrian benetan ikusgarri oongo dira, zoritxarrez gero eta gutxiago diren harresiak. Bospasei iratze mota desberdin, likena, goroldioa eta hainbat loredun espezie (murruntza, Venusen zilborra, horma-belarra...) ikus daitezke honezker, harri tarteen apaingari.

Jon Irazabal > Durangoko Azokaren zuzendaria

“Komertzioa eta kultura buztartu behar dira Euskal Herriko gurdia aurrera eroateko”



Jon Irazabal Durangoko Liburu eta Disko Azokako zuzendaria izan da azken bost urteotan

Abenduaren 4tik 8ra izango da Durangoko 38. Liburu eta Diskoaren Azoka. Hori dela eta, Azokaren zuzendariagaz berbaldia eduki dugu. Jon Irazabal dauka izena, iurretarra da eta 43 urte ditu. Urte horietatik, azkeneko 24etan azokaren antolakuntzan parte hartu du, eta dagoeneko bost dira zuzendaritzan diharduela. Euskaltzaleentzat urteroko ezinbesteko zita bihurtu den ekitaldiaz egin dugu berba Irazabalegaz.

—Urtero, azken urteetan behintzat, berrikuntzaren bat eduki du Azokak. Zein da aurtengoa?

—Espazio berria eta finkoa, Udaletxeak eta Diputazioak emaniko laguntzaren bitartez eraiki den erabilera askoko eraikina. Hau behin betiko kokalekua izatea da asmoa.

—Durangokoa azoka hutsa baino gehiago da. Durangora begira egiten da lan, eta Durangon ez dagoena ez da ezer...

—Hala da, eta nik ez dakit hori kaltea edo onura den. Joseba Jakak esaten zuen

Durangoko azokak fenizioen gunea izan behar zuela: kultura zabaldu eta horregaz batera negozioa egin. Nik pentsatzen dut bai komertzioa eta bai kultura buztartu egin behar direla, Euskal Herriko gurdia aurrerantz eroateko. Bata edo bestea ez balego, hau azoka soila izango lizateke, edozein tokitakoa bezalakoa, 10.000 stand eta kitto.

—Hala ere, esaten da Durangotik kanpo liburuaren industriak (musikarenak ez hainbeste) ez duela saltzen: Azokak esta-

li egiten du gainerakoa, ala azoka barik are okerrago ibiliko ginateke?

—Beti ibiltzen gara nostalgiko Andra Mariko elizpean lau katu joaten ginen garaia gogoratzen. Andra Mariko elizpe bat ere badago momentu honetan ba! Donibane Lohitzunen udabarrian egiten da euskal liburu eta azoka bat, lau katu agertzen garena. Bai, Durangoko azokak inguruko asko xurgatzen du, baina argitaletxeek eurek ere, kultura bultzatzearen ikuspegitik eta apur bat alboratuz nego-

«Askorentzat, liburuetara hurbiltzen diren egun bakarrek dira hauek»

zioa, beste azoka batzuk bultzatu beharko lituzkete, Donibane Lohitzunekoa bezalakoa. Hor dago produkzioa zabaltzeko eta Durangoko masifikazioa urtean zehar banatzeko aukera. Idazle berriek Durangoren beharra daukate, baina idazle sakratuek, beharbada, beste azoka batzuei lagundu ahal izango liekete euren liburuak horietara begira argitaratuz. Azken batean, idazle sakratuen lanek beti jasotzen dute arreta handia komunikabideen aldetik, urteko edozein momentutan argitaratzen direla ere.

—Masifikazioa aipatu duzu. Arazoa da? —Ez dut uste. Esaten da azokara sartzeko eta irteteko arazoak daudela, baina San Mamesera-eta joateko ez daukagu arazorik. Jai giroan etorrita, ez genuke arazorik eduki behar bost minutu gehiago ala gutxiago itxaron behar izateagatik. Gainera, askorentzat urte osoan liburuetara hurbiltzen diren egun bakarra da hau. Batek esaten zuen moduan, beharbada azkenean erosi egingo dute, eta irakurri. m



Gogoa >

# Ludopatía eta kleptomanía

Nagore Etxebarri psikologoa

Aurreko artikuluetan adikzioen gainean jardun dugu, eta herusturaren gaia ere jorratu dugu oriotan; hausnar dezagun orain gaitz biokaz harremana daukaten ludopatía eta kleptomanía entzutetsuez. Argi dago ekintza bi hauek, jolastea eta lapurtzea, ez dutela inongo dependentziarik sortzen fisikoki. Baina kontuan izan behar da biak ere atsegina era errazean lortzeko bidea direla, hasiera batean behintzat. Jakina, herustura egoeretan lasaigarria da atsegina sentitzea, eta horrelako ekintza sinple batek eskeiniz gero, erraza da ohitura bihurtzea. Hau da, edozein herustura egoeratan, jarduera horiei konpultsiboki zein obsesiboki heltzera iritsi daiteke subjektua, joera hori patologia bihurtzeraino. Gainera, jarduerok batzuetan irabaziak dakartzate (jokuko etekinak edo lapurtutakoa erabilgarria izateak), eta horrek indartu egiten du joera. Hau da, berez adikzioa sortzen ez badute ere, badaude jokaera errepikatzen bultzatzen duten arrazoiak.

Horrez gain, maila bateko lorpenaren alaitasuna gaintitzen denean tolerantzia antzekoa gertatzen da, eta substantzien adikzio fisikoaren neurriko kontua ez bada ere, badira duten herustura ase nahian ekintza hauei "lotuta" geratzen diren pertsonak. 4



Gorputza > homeopatía

# Onura ugariak

Carmen Marcos mediku homeopata

**Homeopatía** gaixotasunak sendatzeko bide bat da, norberak sendatzeko daukan gaitasuna suspertzen edo berrezartzen duena. Homeopatian, gaitzak banan-banan aztertzen dira, eta hala, gaixotasun berak tratamendu desberdinak edukiko ditu gaixoarene ezaugarri berezien arabera. Medikamentu homeopatikoa landareetatik, animalietatik edo mineraletatik datozen sustantziak dira. Diluzio eta dinamizazio bitartez lantzen dira sustantzia horiek, eta modu horretan oso dosi txikiak, infinitesimalak, lortzen dira. Dosiok sendatzeko

gaitasuna daukate, baina dosi handiek eragiten dituzten gaitzak eragin barik.

Homeopatiak gaixotasun larriak zein kronikoa sendatzeko balio du, barne direla estresa, herustura, lo egoteko ezintasuna eta beste batzuk.

Ez dago mugarik, adinaren aldetik, tratamendu homeopatikoa bat hartzeko. Umerik txikienetik atso-agureetara, edo nork erabil dezake homeopatía, bizitzaren edozein momentutan, bai eta haurdunaldiak dirauen bitartean edota menopausian ere. 3



«Homeopatian, dosiak txikiak dira; sendatzeko gaitasuna daukate, baina dosi handien eragin kaltegarriarik ez»



Getxoko diseinatzaile gazte hauek ditugu beheko osagarrien egileak

## Marilu Pérez & Nerea Muela Bizigarri berria

**SARRERA:** Bata Algortakoa da; bestea berriz, Areetakoa. Biek 25 urte dauzkate, lagunak dira EHUn Arte Ederrak ikasi zutenetik, eta diseinu munduan lehen pausuak emoten dabilta. Bakoitzak bere aldetik egiten du behar, Getxomodaren azken aldian gertatu zen moduan...

**“...Baina** gure asmoa elkarregaz zeozer egitea da”, dioskue Marilu Pérez eta Nerea Muela diseinugile gazteek. Getxomodakoa jendaurrean egin zuten lehendabiziko ekitaldia izan zen, “eta oso esperientzia ona” izan zela aitortu digute: “Urduritasun handia ere bageneukan, baina azkenean interesgarria gertatu zen. Ibiltokiaren atzealdean asko ikasten duzu, besteek lana zelan egiten duten ikusiz”.

Poltsak, belarritakoak eta halako osagarriak diseinatzen dituzte biek, “bai egiteko bai saltzeko errazagoak direlako”, dio Mariluk. Euren sorkuntzak nahiko alaiak, kolore askokoak eta eramangarriak ei dira: “Osagarrieekin gauza desberdinak egiteko aukera daukazu, eta jendeak halakoak erosten gehiago ausartzen da”. Aurrerago erabakiko dute jantziak diseinatzen dituzten ala ez.

Miriam Ocariz eta Josep Font diseinugile bilbotarra eta kataluniarra, hurrenez hurren, dituzte gustuko, “garai

bateko gauzak gaur egunekoekin batzen dituztelako. Eta zelan geratzen zaie gustatzen zait”, azaldu du Mariluk. Zaila ikusten dute modatik bizitzea, eta oraingoz beste lanetan jardun behar dute; izan ere, Euskadin leku bat egitea ez da kanpoan bezain erraza: “Gurean –diosku Nereak– badira diseinugileak, eta onak gainera, baina Madrilén edo Bartzelonan ikasi eta lan egin behar dute gehienek. Orain, ordea, gauzak mugitzen doaz, eta egoera onera aldatzen hasi da”. 3



# I aki Bitxitegia

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA  
Villamonte T: 4302345  
Algorta

**Arasa**

Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa

Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

SUKALDEETAN ADITUAK GARA

Sarrikobaso, 44 • Tel/Fax: 94 430 11 91 • 48990 Algorta

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

**GAVRKO**

GIZONENTZA - KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

Basagoiti, 55 behea  
T.: 94 460 09 62 / 66  
Faxa: 94 460 0966  
48990 ALGORTA  
eginkor@euskalnet.net  
www.inmoeginkor.com

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA  
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Periodontzia  
EADI

Bidebarri 27, behea eskalera 2. ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

**HORTZ?KLINIKA**

Tel.& Faxes: 94 460 06 21  
Andikoetxe 2, behea ezkerre  
ALGORTA



## irabazi UKrekin

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak  
x Erreuma x Kiroleko

Lor ezazu Mugiren eskutik  
ordu bateko  
masai bat debalde Galdere


**zein urtetan  
kaleratu zen  
UKren 0. zenbakia?**

94 491 13 37  
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELA 17 67

Gonzalo Iribarnegaray  
idazle eta bidaiari getxoztarraren eskutik

## “Un mes en Bostwana”



Eskatu zure liburudendan!

aluzkaria euxean  
jaso nahi baduzu**94 491 13 37**

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba  
Arizti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Gernika  
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

[sarean]

## Txibirita eta barraskilorik gabe

Euskaltzaindiak “@” ikurrari “a bildua”  
deitzea erabaki du

a bildua

**Izena** duenak izana du. Edo alderantziz zen? Arazoa dator “izan” batek hainbat “izen” duenean. Eta hori maiz gertatzen da teknologia berriez hitz egitean. Nola esan “posta elektronikoa” edo “e-posta”? Nola deitu www-ri? Nola itzuli “chat”? Pixkanaka-pixkanaka Euskaltzaindiak erantzuna ematen die zalantza hauei. Azkenekoa “@” nola izendatu izan da: “barraskilo”, “txiribita” eta antzeko izendura bukolikoak alde batera utzi beharko ditugu eta hobetsitako “a bildua” erabili hemendik aurrera.

“@” sinboloa ingelesez “at” esan nahi du, hau da “non”. Beraz, hori itzuliaz, [jon@ehu.es](mailto:jon@ehu.es) helbidea honela irakurriko genuke: “Jon, EHU”. Eta, ikur honek zer izen du beste hizkuntzetan? Gazte-

lerazko “arroba” ezezik beste hainbat izen du: adibidez frantsesez “arobase” eta italiaraz “chicciola” deitzen zaio. Alemaniarrek ingelesezkoa ere erabiltzen dute: “at”. Bitxia da ikustea bizirik dirauten hizkuntzek nola bilatu behar izan dioten izen bat orain hamar urte ia ezezaguna zenari. Hori bai, sare erraldoi honi denok deitzen diogu modu berean: Internet. m

## webgida

**GOOGLE DESKBAR**  
>[www.toolbar.google.com/deskbars](http://www.toolbar.google.com/deskbars)

Google-ek behin eta berriz harritzen gaitu. Plazaratu duen azkeneko asmakizuna ondo baino hobeto dago: *Google deskbars*. Nabigatzailea zabaldu gabe edozein bilaketa egin dezakegu tramankulu berri honi esker, modu erraz eta garbian. Alde txarra? Windows-eko erabiltzaileek bakarrik erabili dezaketela.

**LA PELOTA VASCA**  
>[www.lapelotavasca.net](http://www.lapelotavasca.net)

Filma ikusi zenuen? Hala bada, webgune honetan dokumentalean agertzen ez ziren elkarrizketak ikusteko aukera izango duzu. Foro galanta eskaintzen du

Sarean aurkitu ditugu >  
Gerra kontuak

Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra.  
Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu.  
[aldizkaria@euskalnet.net](mailto:aldizkaria@euskalnet.net)

## ARGIAren MAHAI JOLASA

Zer egin lagunekin dibertitzeko? **Badakit!**Zer egin mundua deskubritzeko? **Badakit!**Zer egin etxekoeti ziria sartzeko? **Badakit!**Zer egin ez aspertzeko? **Badakit!****Galdere guztien erantzuna... Badakit!**

MAHAI  
**badakit**

**JOLASA**  
1.800 galdera

**2-36**  
jokalari

Adin guztietarako egokia  
Bi zailtasun maila

SALMENTA PREZIOA

**30€**



Opari honekin asmatuko duzu  
**BADAKIT!**

- badakit badakit badakit
- ☐ NATURA ETA GEOGRAFIA
  - ☐ TELEBISTA ETA IKUSKIZUNAK
  - ☐ ARIKETAK
  - ☐ KIROLA
  - ☐ HIZKUNTZA ETA LITERATURA
  - ☐ KULTURA



**ESKAERAK:** 943 37 15 45 (Argia)  
[denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)  
Ohiko salmenta lekuetan

 **ARGIA**



ALBE alerik ale

# Behar denean behar denerako

Josu Esnaola > Elgoibartik Algortara zuzenean

Ez da erraza Josu bezalakoak topatzea, urduri zein lasai egonda irribarretsu agertzen direnetakoa, neurri handian zein txikian, beti zerbait aportatzekoa. Horrelakoa da bera, eta ale honetan, bere soslairik atsegine-na atera dugu mahai gainera.

Testua: Josu Arroyo  
Argazkia: Asier Mentxaka



«Euskararen alde gaudela esatea soilik gaur egun ez da nahikoa»

—Josu Esnaolaz galdetzean, «euskaldun jatorra» erantzuten dute askok. Zer duzu horretaz esateko?  
—Zer esango dizut, bada, nik! Familia euskaldun batean jaioa naiz, beraz, halabeharrez naiz euskaldun. Eta euskaldun izateko modu bakarra ezagutzen dut: euskaraz berba egin eta euskaraz bizi. Gainera, jaio nintzen lekuan jaiotzeko zorte ikaragarria izan nuen, eta horri esker, gertu-gertutik ezagutu izan dut euskal mundua. Ezagutu eta maitatu. Txikitan, niretzat hor hasi eta amaitzen zen mundua. Eta gaur egun ere, beste musika, dantza, ohitura batzuk gogoko izan arren, baserritar nagusi bi ferian euskaraz berbetan entzutean, idi-probak edo harri-jasotzaileak ikustean, trikitixa doinuak, txalaparta entzutean... oilo-ipurdia jartzen zait. Hori euskaldun jatorra izatea den ez dakit...  
—Nik erantsiko nuke euskararen aldeko langile ere bazarela. Zuzen al nabil?  
—Langile? Ez dakit. Lehen esan dizut halabeharrez naizela euskaldun, baina gaur egun ere euskaldun izatea borondatezko kontua da. Nik euskara bizirik gura dut, baina euskara ez da hor dagoen zer edo zer,

ez da izaki abstraktua, euskara geu gara, euskara darabilgunok gara euskara, eta bizirik iraungo du guk erabiltzen dugun neurrian, eta indartsu egongo da gure barruan, gure bizitzan indarra daukan neurrian. Euskararen alde gaudela esatea edo manifestazioetako aldarrikapenak euskaraz egitea soilik gaur egun ez da nahikoa.  
—Eta Bertso Eskolan orain urte gutxi hasi zinen. Inoiz ez da berandu?  
—Ez, inoiz ez da berandu. Hala ere, airtortu behar dut umetan ikastolan-eta, bertso zaharrak entzuten genituela, eta beti izan ditut gogoko. Gaztetan ere Elgoi-

## ERAKUSLEIHOA

- ▶ Josu Esnaola Aranguren.
- ▶ 1962ko urtarrilaren 8an jaioa, Elgoibarren.
- ▶ Algortan bizi da.
- ▶ Irakasle-eskolan ikasi zuen, Donostian.
- ▶ Egun, Leioako Udaleko euskarazerbitzuan egiten du lan.

## HIRU LERROAN

## EUSKALDUNAN ENTZUN ETA IKUSIA

Bertsotzartzailea: Josu Esnaola  
Doinua: 8ko nagusiko edozein

1

Gu bizi ginen oskol batean aparte edo gorderik eta pentsatuz ez genuela mundu osoan parerik. Kanpo aldera urrats bat eman, ez dago gauza hoberik; aurkitu dugu familia bat neba-arrebez beterik.

2

Neba-arrebok etorri dira bisitan gure etxera, duten onena gure artean erakustera gainera. Ohar gaitezen euskaraz landa badela mila aukera, besteengandik ikas dezagun baina izanaz norbera.

3

Sardinia, Kuba edo Menorca, hasita batzuk aipatzen, Mexikok ere musika eta ahotsa zituen batzen; Simba Afrika hauen artean berritzaileagoa zen eta euskaldunok ideiaz ondo, baina ez dakigu kantatzen.

## “Euskaraz bizitzeko, euskaldun sentitzeko, Bertso Eskola erreferente garrantzitsua da”

barren, auzoetan eta inguruko herrietan plaza libreko saio askotxo entzuna naiz, badakizu, jaien aitzakian han bueltan izaten ginen eta. Sekula ez dut ahaztuko Sanllobente auzoan bazkalostean Lazkao Txikik egindako saioa, ondoren Iñaki Perurena zegoen harri-jasotzaile, soldadutza egin berri, aspaldiko kontuak... Gero Algortara etorri eta urte luzetan gaueko hamarrak arte lanean ibili behar izan nuen, eta jakina... Baina bertsotan oraintxe hasi banaiz ere, aparteko asmorik ez daukat, lagunarte ederrean ondo pasatzea, besterik ez. Horretarako inoiz ez da berandu.  
—Algortara bizitzera datozen gipuzkoar guztiek ALBEn amaitzen omen dute. Zertan da hori?  
—Neurri batean normala da. Kanpotik etorri eta euskaraz bizitzen, euskaldun izaten, jarraitu nahi duenak euskal giroa bila-

tu behar du, eta Bertso Eskola erreferente garrantzitsua da, badakizu hor euskaldunak aurkituko dituzula, bertsolaritza delako gure herrian euskara hutsez baino egin ezin daitekeen jarduera bakarra.  
—Gerora begira, nola egingo dituzu plaza gehien, gaiak jartzen ala bertsotan?  
—Plaza kontuak ez nau batere kezkatzen, nire asmoa ez da plazak egitea. Egin behar bada egiten da, eta oso gustura gainera, baina horrek ez dit lorik galeraziko; hori balitz arazorik larriena, ederto geundeki!

*Jator-jator eta bihotzez bota zituen Josuk bere erantzunak, eta argi utzi zuen behintzat, oso maite duela euskara, eta oso maite dituela euskaldunak. Bertsolaritza ere gustuko arloa du elgoibartar honek, eta hiru bertsotan hartaz sakon jarduteko gai dela ere ikusiko duzue.* m

## BERTSOAGENDA

### PILOTA partidua BERTSOZ jarraitua

Azaroak 29, 19:00etan

Algortako San Nikolaseko frontoian

#### Pilotariak:

Martin I eta II mallabiarrak vs  
Etxebarria eta Erauskin arratiarrak

#### Bertsolariak:

Fredi Paia eta Etxahun Lekue

\*\*\*

Bertso agenda gaurkotua:  
www.albegetxo.net



# Sintaxia lantzen

Tomas Abarrategigaz berba egin ostean, gramatika kontuetara etorriko gara atzera. Gaur, sintaxia landuko dugu; denborazko esaldiak eta konpletiboak, hain zuzen ere. Horretarako, berton erabiltzen diren menperagailuak bildu eta adibide bana imini dugu.

Testua: Urtzi Iglesias

## Denborazko esaldiak

**-keran** (-rakoan)  
*Etorkeran lagunek ikusi nendusen* (Getxo)  
‘Etortzerakoan lagunak ikusi nituen’

*Baño lela*o (baino lehenago)  
*Zerbitzura yon baio lehela*u hiru urte eon nintzen beharren (Berango)  
‘Zerbitzura joan baino lehenago, hiru urte egon nintzen lanean’

*Arten* (arte)  
*Hamabost urteaz hasi nintzen, hamasei barik, ta hirurogei art*en (Berango)

## Konpletiboak

Esaldi konpletiboetan, **-la**, **-na** eta **-nik** moduko menperagailuak erabiltzen dira, esaldi nagusiaren egitura motaren arabera (baiezkoa, ezezkoa, galdera).

**Baiezkoetan**  
**-la:** *Esan deu etorko dala* (Sopela)  
**-na:** *Esan dotzut txarto daona* (Leioa)  
‘Etorriko dela esan du’  
‘Esan dizut txarto dagoela’

**Ezezkoetan**  
**-la:** *Ez deure esan eingo deurela* (Getxo)  
**-na:** *Ez da egi hona etor dana* (Sopela)  
**-nik:** *Ez dot pentsaten euririk eingo deunik* (Sopela)  
‘Ez dute esan egingo dutenik’  
‘Ez da egia hona etorri denik’  
‘Ez dut uste euria egingo duenik’

**Baiezko galderetan**  
**-la:** *Etor direla esan dozu?* (Leioa)  
**-na:** *Entzun dozu etor direna?* (Getxo)  
‘Etorri direla esan duzu?’  
‘Entzun duzu etorri direla?’

**Ezezko galderetan**  
**-la:** *Ez dozu pentsetan etorko dala?* (Leioa)  
**-na:** *Ez dozu jakin hemekoa nazena?* (Getxo)  
‘Ez duzu uste etorriko denik?’  
‘Ez duzu jakin hemengoa naizela?’

## Gurberbakea

## GURE? AZENTU

Testua: **Xabi Bilbao**

**Azentun** ganerako aurreko kapitulu akabakeran “misterio” txiker bat agertu zan: erderazko *-ar* aditzetatik (*cantar*, *comparar*, e.a.) hartu doguzen maillegu batzuk azentudunek direz gure euskeran (*akába*, *koménta*, *konpára*, *akórda*, *armósa*, *gobérna*, *barrúnta*, eta abar), eta beste batzuk, ostera, azentubakok direz (*pasa*, *topa*, *sobra*, *pinta*, *olga*, *kanta*, *paga*, *gasta*,...). Zuok, irakurle zorrotzok, behingon kargutu ixengo zare noz direzen honek mailleguk azentudunek eta noz azentubakok: silaba bikok azentu barik erabilten doguz gure berbakeran, baia hiru silabakok, azentuez. Hori da misterio duzti. Bai? Eta ordun zegaitik esaten da *sálta* (*kasureko: ugaráio*k ezta*u sálta*) lehelengo silaban azentu darola, silaba biko berba bada? Haor beste misteriotxu bet.

Dagola, oraingoz, kontu hori, hurrengo kapitulu heldu arten pentsateko. Gaur hemen aurrera egingo dogu berba azentudunen gaien beste kasu batzuk ikusten. Berbakere 20n ikusi gendun lez, berba azentudun kasik duztik berezitasunen bat dauke, eta horretatik berazitasunetik datorke azentu. Lau berezitasun mota dagozela esan gendun, eta laurotatik bat ikusi dogu orain arten astiro: mailleguko berba azentudunek (kasu beterako, oraintxe aitetu doguzen *koménta* eta *konpára* moduko aditzek). Gaur berba azentudunek sortzen dauzen beste berezitasun bet hasiko gara ikusten: **alkartuko** **berbak**, hau da, berba bi alkartute sortu direzen **berbak**, kasu beterako, *buriándi*, *odóloste* edo *sagúzar* modukok.

Euskera duztiten (eta beste hizkuntza askotan) berba bi edo gehiau alkartute sortu direz berba batzuk, eta holantxe, gure berbakeran (euskera askotan lez) *sagu* eta *zahar* **berbak** batute, hegaz egiten daun *sagu* antzeko bateri geitzeko erabilten dan berbe sortu da: *sagúzarra*. Berba azentudune da hau, baia ez *sagu* ez *zahar* ez direz azentudunek. Zegaitik deko *sagúzar* **berbak** azentu ordun? Ba, aitetu dogun lez, alkartuko berbe dalako: halau berba danak ez, baia gehienak, azentu daraude. Hurrengo aldin ikusko doguz adibide gehiau.

Ondo ibilli! 4

# HITZALDIAK

EUSKALDUNAK EUROPAKO  
AZKEN AZTARNA OTE?

19:00etan, Getxo Antzokian



Abenduaren 3an:  
EUSKARAK GETXON BADU ETORKIZUNIK II

Abenduaren 9an:  
EUSKARAREN EGOERA: KEZKATZEKO  
ARRAZOIRIK BA OTE DAGO?

Abenduaren 11n:  
EUSKALDUNAK ANTZINAKO EUROPAKO AZKEN  
AZTARNA OTE?







gaizka escudero / villabotas-ekoa

# Indaba zuriak

Gernikako indabak txirlekin batera janda gutizia dira. Hasteko, bezperan indabak uretan jarri behar dira. Lapiko batean, oliba olio apur bat, indabak, eta barazkiak broumuase-an zatituta (hau da, oso zati txikitan) sartuko ditugu: tipula, azenarioa, tomatea, porruak, piper berdea, berakatza eta txorizo-piperra. Su ahulean egiten utziko ditugu, ordu pare bat gutxi gorabehera. Bestalde, zartaginean, oliba oliotan, berakatza, gindila, ardo zuri eta baldin badaukagu, arrain salda apur bat jarriko ditugu. Berakatza urreztatu aurretik txirlak botako ditugu, zabaltzen direnean, eginda daude. Amaitzeko guztia nahastu eta segituan mahai gainera. Egun batetik bestera oso gozo egoten dira. m

osagaiak

Gernikako indabak • txirlak • tipula gorri bi • azenario bi • hiru tomate ondu  
piper berde bat • arrain salda • ardo zuria • hiru porru • berakatza • gatza • oliba olio



itsaso arana / jolastoki-koa

# Botila

Botilak greziar eta erromatarren garaietatik XVII. mendeko Ingalaterra arte aldaketa asko ezagutu ditu. Greziarrek eta erromatarrek, ontzi praktiko baten moduan ulertzen zuten, XVII. mendean berriz, ardoaren kalitatezko ezaugarriak mantentzeko kezka, gaur eguneko itxura izatea ekarri zuen.

**Jatorriak:** Greziar eta erromatarren garai klasikoan egurrezko, buztinezko zein animalia larruzko fudreetan gordetzen zen ardoa. Garai hartako botilagintza Tel Aviv-eko Haretz museoan ikus daiteke, eta bertan ardoa zerbitzeko ontzi hauskorak ikus daitezke. Ontzi haiek ez ziren ardoa kontserbatzeko batere egokiak. Merkatarri holandarrak ardoaren bizi iraupen laburrarekin eta merkatuetarako bidaia luzeetan izaten zuen kalteekin kezkatuak, ardoari alkohola eta sufrea botatzen hasi ziren.

**Botilaren jatorria:** Ardoa eta beiraren arteko erabateko harremana, 1662an Sir Kene Digby kortesau britaniarrak egin zuen lehenengo botilekin hasi zen. Botila tubularra zen, lepo jauziak zituen, sama luzekoa eta forma zilindrikoa zuen. Sir Kenek botilak etzanda gorde ahal izateko asmatu zuen botila mota hau. Garai hartan ez ziren kortxozko tapoiak ezagutzen, egurrezkoak ziren eta soka labur batekin botilara lotzen ziren. Hauxe da gaur egun ezagutzen dugun botilaren jatorria. Holandarrek “ingeles moduko botila” izenarekin bataiatu zuten. Frantsesek segituan eurenaganatu zuten botila mota hau ardo gorriak esportatzeko eta “bordelaise” izena jarri zioten. Hastapenetako botila haiek gaur egunean duten kolore oliba berdea zuten, ia gardena. Hau txiripaz gertatu zen, izan ere, labee-tan erabiltzen zen ikatzak botatzen zuen keak beirari kolore hura ematen ziolako. Geroago kolore ilun horrek ardoa argitik babesten zuela ikusi zen eta hori ardoaren kontserbaziorako gauza ona zen. m

# Regi jatetxea

## Tradizioa kalitate bihurtuta



Argazkian, Ireide eta Maitane Somarriba, sukaldariak

**Bost urte daroez** Urdulizko Regi jatetxean Regina Arrolak eta beraren alabek, Ireide eta Maitane Somarriba. Azken bi hauek egiten dute sukaldari lana, eta Ireidek eman digu euren arrakastaren sekretuaren berri. Arrakasta diogu, bai, lepo edukiten dute-eta jantokia egunero (38 lagunentzako lekua dago); asteburuan jateko, esaterako, hilabete bat edo bi itxaron behar da. “*Kalitate oneko janaria dugu*”, dio Ireidek, “*eta gainerakoan sukaldaritz normala egiten dugu. Betiko platerak*

*betiko eran prestatuta, edo oso aldaketa txikiekin*”. Regik menu zabala eskaintzen du, bai eguerdiz bai gauetz (neguan, bariku eta zapatuetan bakarrik), sei edo zazpi lehen platergaz, eta launa edo bosna arrain eta okelagaz. Dena 33 euroren truke. Enkarguzkoak ere egiten dituzte, prezio jakin batean adostuta. m

**REGI JATETXEA**  
**Aita Gotzon 2, Urduliz**  
**Telefona: 94 676 58 56**

zure **publizitatea** hemen

UK **94 491 13 37**

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
**ezagutzen al duzu?**  
*herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!*  
**Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA**

Norte jatetxea

**RESTAURANTE NORTE**

adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea  
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etor. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO



zure  
dirulaguntza  
behar-beharrezkoa  
dugu

aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37

**dirulaguntzak**  
Boluntzarreta  
BBK 2095 0121 10 9102483676  
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.  
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00





prentsa ¥ aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

### BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikabasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

### EREAGA

Bidaia  
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988  
Faxa: 94 453 33 34  
GETXO

### OLATXO

altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA  
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA  
T. : 94 491 13 94

### VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira joaten zaren bakoitzean, berehala nekatzen zara; sarriago joaten hasi beharko zenuke.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Noiz arte jarraituko duzu jokabide horregaz, *Aitzurra*? Zu bai maltzurra: ez diozu inori kasurik egiten, eta azkenean nazkatu egingo zaizkizu ingurukoak. Denbora asko daramazu egunero gauza bera egiten eta jende bera ikusten; agian, aldatzeko ordua ailegatu da.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Buruko minaz bazabiltza, eta lasaiago geratu gura baduzu, medikuarengana joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, *Garia*? Noizean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Ezusteko ona hartu berri duzu; zukua aterazioz, horrelakoak egunero gertatzen ez dira-eta. Jatetxe on hartara zoazte afaltzera, baina kontuz ibili, agian uste duzuen baino gehiago hustu beharko duzue sakela.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Inork ez zaituela ulertzen pentsatzen duzu, baina inoiz saiatu al zara zu besteak ulertzen, *Otsa*? Osasuna gehiago zaintzea komeni zaizu, eta mediku jaunari bisitatxoren bat ere egin beharko zenioke.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Azkenaldian bikotekideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunakaz ez ahaztu. Beharrea zabiltzanean kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazun.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Erabaki garrantzitsu bat hartu behar duzu eta ez dakizu zer egin: ba ideiak argitzea ondo etorriko zaizu. Jan eta lo besterik ez duzula egiten? Alferra halakoa! Noiz hasiko zara hezur eta gihar horiek astintzen herdoildu baino lehen?

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Egunetik egunera tristeago zaude, *Hazia*. Beste zerbaitetan pentsatzen ahalegindu, bestela, berdin-berdin jarraituko duzu. Ez zara inorekin fidatzen, eta jendeagaz konfiantza handiagoa izan beharko zenuke; zeure onerako da.

ADARRA


t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Etxean ez duzulako batere laguntzen kezkatzen dira, eta horrek aldatu egin beharko du noizbait. Haren urtebetetzeaz ahaztu zara, eta ez du ondo hartu; konpontzeko modu on bat afaltzera gonbidatzea izan daiteke.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Arazo larri bat darabilzu buruan bueltaka. Pentsatu apur bat, konponbidea zuk uste duzun baino errazagoa da-eta. Azkena noiz irakurri zenuen liburu bat oso-osorik? Liburu bat amaitzea ez da zaila, gustukoa aurkitzea da gakoa.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Zenbat denbora da txikitako lagun hari ez diozula deitzen? Deituiozu eta haren ahotsa berriz entzutean asko poztuko zara. Gaur lo gehiago egin beharko zenuke; trenean lo hartzen baduzu, ez zara jaitsiko zeure geltokian.

NEGUA

t




(Azaroak 16 abenduak 20)  
Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriakaz ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.





## HITZ GURUTZATUAK



## Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorrak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzaile. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baseritarrak ez direnak.

## Goitik behera

1. Sailkapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorrila. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

## Soluzioak

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | V | R | R | A | T | E | T | V | K |
| A | D | I | K | A | T | K | A | V | A |
| V | A | R | T | A | B | A | V | U | T |
| S | U | R | B | A | M | E | T | E | T |
| I | E | A | O | K | U | T | V | K | R |
| K | A | R | R | E | T | A | T | K | R |
| R | O | K | K | A | Z | I | V | L | A |
| V | R | U | K | A | V | U | S | I | T |
| N | V | N | A | N | A | B | A | S | V |
| E | A | D | E | K | I | S | A | L | S |



**eUSKĀLDUNON**  
denbora-pasa eta  
hitz jokoen hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK .....  
HELBIDEA .....  
HURIA .....  
LURRALDEA ..... P.K. ....  
TEL. .... E-MAILUA .....  
KONTU KORRONTEA:.....

LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN  
Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xedera.com

www.xedera.com

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak

Nor da?

- Radio Euskadiko ahotsik esanguratsuen da
- Zinemazale eta literaturazale amorratua, ia dena daki arte horietaz
- Arrakasta handiko saioa aurkezten du martitzen gauetan

> Aurrekoaren erantzuna: Amaia Zubiria

> Irabazlea: **\*Mikel Lauzirika**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean  
Argia astekariaren opari sorta ederra zozketatuko dugu.

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48998 Getxo  
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

• **Argia** astekariaren hiru  
hilabeteko harpidetza doan



• **Zumeta-Artzeren lamina**

www.argia.com



Bittor Egurrola

## Irutasun abesbatza, 1979

**Algortako Irutasun** abesbatzak 25. urteurrena ospatu du orain dela gutxi, kontzertu bat eskainiz Hirutasun elizan. Eliza honek eman zion izena koru honi, eta bertako abade izandako Antonio Artetxe hirukoiztarra izan zen koruaren sortzailea eta lehenengo zuzendaria (1978-10-26). Argazkia hurrengo urtean, 1979an, dago aterata, elizaren atzealdean.

Eliz korua izateko jaioa izanda, nazioarteko folkloreari ere arreta jartzen dio Irutasunek. Han eta hemen hainbat kontzertu eman ditu, kasurako, Erromako Vatikanon, Sevillako katedralean, Vienan, Bernan... Gainera, abesbatzaren kalitatearen erakusgarri, hor dugu Torreviejan polifonia sailean irabazitako lehen saria, Habanera eta Polifoniaren XXXI. Nazioarteko Txapelketan. 1985ean izan zen hori, Ramon Lopez de Zarateren zuzendari zela.

Gaur egun, 19 emakumek eta 13 gizonak osatzen dute taldea, Barakaldoko Jose Manuel Gomez zuzendaritzapean eta Pedro Guallar Otazua organo-jolearen laguntzagaz. Eta zer esan hasiera-hasieratik gaur egun arte, 25 urtez kantatzeari tinko eutsi dioten Victor Zarraga eta Casilda de la Campa korukideez? Ba, txalotzekoa eta zoriontzekoa dela euren beharra. Guk ere badugu nola txalotu eta zoriondu abesbatza honen 25. urteurrena, 2004ko apirila arte antolatuko diren kantaldietara joanez, hain zuzen ere. m

**Lehen lerroa (zutunik):** Jose Antonio Urdiain "Txurdiñ", Teogenes Martinez, Antonio Artetxe hirukoiztarra (taldearen sortzailea).

**Bigarren lerroa (zutunik):** Felix Etxebarria (GB), Patxo Jimenez, Elda Lopez de Satrustegi, Jesus M. Ruiz, Anton Landaida, Alfonso Eguzkitza (GB), Marina Ansoleaga, Raul Gorroño (zuzendaria, GB), Conchita Santisteban, Pilar Bravo, Carmen Acillona, M. Luisa Goiri, Juan Libano, Angel Villa.

**Hirugarren lerroa (zutunik):** Victor Zarraga, Josebe Ariño, Maria Schasidt, Itziar Iturregi, Nerea San Cristobal, Marisi Garcia, Mara Jean Fracyon, Ricardo Artetxe (GB).

**Laugarren lerroa (makurturik):** Pepe Mingo (GB), Patxo Gutierrez, Elisabet Schasidt, Monica ?, Casilda de la Campa, Aurora Nomen, Begoña Zulaika, Arantza Gallastegi, Laura Castellanos, Txaro Dorda, Pili Molina, Txaro Monzon, Javier Elustondo



**PEDRO GARCIA LARRAGAN** > kazetaria

# “Ordena larregi gustaten jat”



## **Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...**

Hori bai galdera ona! Nik pentsaten dot ohituratako gizona nazela, eta gainera gustaten jat, beti gauza berak egiten dodaz eta oso gauza sinpleak gainera.

## **Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?**

Ordena larregi gustaten jatala izan leike. Etxean dena bere lekuan ez badago urduri jarten naz, eta umeakaz ezin da.

## **Zure haurtzaroko oroitzapen bat...**

Batez bere oro har oso zoriotsu izan nintzela. Gogoratzen naz udan Gorlizen egoten ginela, etxe handi baten, eta sekulako gogoramena dekot horretaz.

## **Nor da gehien miresten duzun pertsona?**

Musikari bat, seguru. Aukeratzekotan, Mozart edo Beethoven. Mozart, txiki-txikitatik sekulako musika egiten ebalako, eta Beethoven, gor izanda egiten ebalako musika.

## **Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?**

Beharra ondo egiten dodala.

## **Abestirik gustukoena?**

Asko. Oso zaila da bat aukeratzea. Burura etorten jatan lehenengoa *Azken mohikanoa* filmaren musika da, esaterako, edo Beethoven-en *Para Elisa*, hori ikaragarria iruditzen jat. Baina ez dago abesti bat, asko dagoz.

## **Liburu bat?**

Orain irakurten nabilena beharbada: *Gorde nazazu lurpean*. Zaletasun handia hartzen nabil Ramon Saizarbitorriagaz, orain bera topaten nabil, eta oso ona begitantzen jat. Niretzat euskaraz dagoen idazlerik hoberena izango da.

## **Eta film bat? *Azken mohikanoa*.**

## **Zein lelogaz egiten duzu bat?**

Asko gustaten jataz Sokratesenak, “*ezer ez dakidala besterik ez dakit*” eta halakoak. Zalantza ona dala diñoenak.

## **Zerk ematen dizu beldurra? Bakardadeak.**

## **Eta zerk egiten zaitu zoriontsu?**

Familiak, lagunak, koadrillak, hemen pote batzuk hartu ahal izateak, Getxoko paisajeak... m

**PEDRO GARCIA LARRAGAN** — Bilbon jaio zen, Indautxun, baina honezkero “*urte gehiago egin ditut Getxon bizitzen Bilbon baino*”. 15 urte zeuzkala etorri zen Uribe Kostara orain 37 dauzkan Pedro García Larragan kazetaria, eta berton jarraitzen du, orain emazte eta seme-alabakaz. Kazetaritzan denetarik egin du: Correon ibili zen lehenik, eta hura utzi eta gero, 1990ean, Radio Euskadin hasi zen eta han dago oraindik ere. Gehien bat albistegietan dihardu, bestelako saiarik egin izan badu ere, eta albistegiak izan zituen lantoki telebistara osteratxoa egin zuenean. Orain dela bost urte-edo izan zen hori, “*ETAren su-etenagaz batera*”, eta Teleberriak aurkeztea egokitu zitzaion.